

«Nobelagile onak
poeta ona ere
badu bere
barruan»

**KIRMEN
URIBE**

Tximeletak

Gazte mugimenduaren 30 urteko ibilbidea aztertu duen proiektua

Flandria, Eskozia, Katalunia

Hiru bide independentziantz

Larrun

Genero indarkeriaren dimentsio estrukturalaz

Net Hurbil

Klima aldaketak eragina du Siriako gerran

Roslyn Frank

«Nire linguistikaren helburua euskarak gordetzen duena ikertzea da»

47. DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

2012KO ABENDUAREN 6TIK 9RA

argia



Liburu eta mahai jolasetan bertaratuentzat
prezio eta eskaintza bereziak

(Goienkale 113-115)

**HARPIDE
izan zaitez!**

Gazte* edo langabetua bazara,

ARGIA astekariaren
urteko harpidetza

%35eko
beherapenarekin

~~145€~~ → **94,25€**

Eskaintza epea: abenduaren 3tik 17ra bitarte * 30 urtetik behera

Eska ezazu zure harpidetza: © 943 37 15 45 · harpide@argia.com

NOBEDADEA

BIZI-BIRZI
mahai jolasa 8 urtetik gorakoentzat

jarri
kolorea
hondakinei

★ Bideratu hondakin bakoitza
berrerabilpen egokia
izan dezakeen eremura.

Egin ezazu eskaera: © 943 37 15 45
denda@argia.com · www.argia.com/denda



29€



Azaleko argazkia:

DANI BLANCO

Azala: GARBINE

UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asumendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Iureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



gizarte
kutxa
zugandik zuzana



euskaraz
bai

NON ZER

2012ko azaroaren 25a, 2.346. zenbakia

DEABRUAREN ABOKATUA

JOXEMARI ESPARZA: «Harro nago mende erdi honetan egin dugun borrokaz». ARITZ GALARRAGA / 4

ASTEKO GAIA

INDEPENDENTZIA BERRIAK EUROPAN Eskubidea... eta patrika. GORKA BEREZIARTUA / 5

PERTSONAIA

ROSLYN FRANK: «Inorekin loturarik ez duen hizkuntza, zertarako aztertu?» diote Iowan». MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIK

ERREFUXIATUAK ALEMANIAN Asilo egoeran daudenak lege bidegabean aurka altxatu dira. MARTIN MENDIZABAL GARAI / 15

IRITZIAREN LEIHOA

BANKU TXARRA, ONA EZIN IZAN

BALEREN BAKAIKOA AZURMENDI / 18

UPN-KO NORBAITEK EZAGUTUKO AL DU ISTORIA?

FERMIN ERBITI / 20

GOBERNU BERRIARI BEGIRA

 M. OTERO/FRACKING EZ ARABA / 21

GORA PRO NOBIS

 ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN

 Fede-batasuna. ITXARO BORDA / 20

BERTSO BERRIAK

 Euskarari jarriak. JULIO SOTO / 21

ZIRTAK

 Errebisionismoa. ANGEL ERRO / 22

ERDIKO KAIERA

KIRMEN URIBE: «Poesiak narrazioaren bidea argitzen lagundu dit». MIEL A. ELUSTONDO / 24

LIBURUAK XABIER ETXANIZ ERLE / 30

DISKOAK IKER BARANDIARAN / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 36

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

TXIMELETAK GAZTE PROIEKTUA: «Sakonean mantentzen den zerbaitek etengabe bultzatzen du gazteria aurrerantz». AXIER LOPEZ / 39

KATALUNIAKO UNIBERTSITATEAK Ikasgaien bi heren katalanez. LANDER ARRETXEAA / 44

ETXE KALERATZEAK Herritar gehienak babesik gabe. URKO APAOLAZA AVILA / 46

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

NET HURBIL Siriako agintariek etsai handiegia daukate: idortea. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

JOXEMARI ESPARZA

Si canta Tafalla, canta Euskal Herria.

| ARITZ GALARRAGA |

Argazkia: Josu Santesteban

«Harro nago mende erdi honetan egin dugun borrokaz»

Zer moduz bizi zara espainol izateari utzi zenionetik?

Sufritzen. Munduko injustiziez jabetzeak ondoeza dakarkizu. Espainol txotxolo nintzelarik zoriontsu bizi nintzen. Orain, independentzia droga da, eta oroz gainetik behar dut.

Espainol izateari utzi zeniola azaldu zenuen, espainolez idatzitako liburu batean.

Erromantzea nire ama hizkuntza delako. Eta euskaraz idazten ez naiz trebe. Gure belaraldiak euskararen aldeko lana erdaraz egin du. Ikastola gehienak erdaldunek eraiki zituzten. Hala ere, nire semeek ez dute berriz hori egin beharko.

Seguru? Eskola horiek jazarri eta zigortu beharrekoak ziren Miguel Sanzen arabera.

Navarrerismo ergel hori da desagerrarazi behar duguna, Nafarroaren minbizia delako. Frankismoaren ondorio ustela, Trantsizioan indartu egin zena nafarron euskal arima ebas-teko.

Vascosnavarros deitu diozu azken liburuari; Euskal Herria fartsa delako, noski, Aznarrek gaztigatu bezala.

Bere aitona kontrakoa erraten zuen. Euskal Herria ukatzea 2000. urtetik aurrerako gauza da. Azken espainolkeria. Francoren garaian ere ez zen gertatzen.

Izan zitekeen berdin *navarrorriojanos*...

Sociedad Navarro-Riojanak hiru sarrera ditu Googlen. Sociedad Vasco-Navarrak 123.000.



Nafarrek, oro har, ez dute Euskal Herria izan nahi.

Hori arras koiunturala da eta aldatuko da beste egoera batean. Joerak hor daude eta etorkizun hurbil batean hauteskondeetan ere islatuko dira.

Baina ez al gara hauteskunde bakoitzean autodeterminatzen?

Hauteskunde guztiak ezberdinak dira. Hor dugu NATOren kontrako erreferenduma, guztien kontra irabazi genuena. Horregatik espainolek ez dituzte galdeketa maite.

Bide batez, ez dakit oso ondo atera diren gauzak azken Orreaga politikoan...

Herri gisa arras ongi atera ginen bozetan. Ezkertiar bezala pixka bat gehiago espero nuen. Alta, gehiago kezkatzen nau presoen egoerak. Uste dut ez dugula behar adina egiten.

Agian Lerin lehentxeago abandonatu balitz...

Lerinetik guztiok elkarrekin atera behar genuen, eta horrela izan da. Hori zen gakoa. Lehenago izanki, zatiketa zitura. Eta geroago, menturaz ere bai. Sagarra heldua zelarik erori da.

Bada ezker abertzaleak prakak jaitsi dituela pentsatzen duenik.

Ongi goaz ene irudiko. Hala ere, ez dira alor labainkorretan urrats gehiago eman behar. Etikarena esaterako. Etikaz utz daitezke armak, etikaz armak hartzen diren bezala. Ni, oro har, harro nago mende erdi honetan egin dugun borrokaz. ■



Eskubidea... eta patrika

Estatu independente izan nahi duen erabakiko du Eskoziak 2014an eta Europa osoan helburu bera duten herrientzat erreferente bihurtu da. Krisiak indartu egin ditu mugimendu independentistak Katalunian eta Flandrian ere. Europako puzzlea pieza txikiagoz osatzen hasteko lehen urratsak ote dira?

| GORKA BEREZIARTUA |

ALFRED HEINEKEN izena irakurtzen baduzu, garagardo marka etorriko zaizu burura. Ez zabilta oker: berde koloreko mozkorrak eragiten dituen edariaren ekoizleak apartasua zuen pentsamendua ere, eta Europa bestelako moldez antolatzeko gogoia adierazi zuen 1992an: “75 estatuk osatutako Europa proposatzen dut” idatzi zuen *Europako Estatu Batuak, Eurotopia?* liburuxkan.

Bost eta hamar milioi arteko biztanleria izango zuten herrialde txikien Europa irudikatzen zuen Heinekenek. Gobernatzeko errazagoa iruditzen zitzaion estatu handiz osatutako batasunaren aldean. Ez zioten kasurik egin eta burutazioa utopia ezinezkoen paperontzian zimurtuta egon da 20 urtez, horrelako puzzle batean egoki sartuko liratekeen piezak mugitzen hasi diren arte.

Urriaren 15eko argazki historikoa: ezkerrean Alex Salmond Eskoziako lehen ministroa eta eskuinean David Cameron, Erresuma Batukoa, Eskoziaren independentziari buruzko 2014ko erreferendumaren akordioa sinatzen.





Eskozian (5 milioi biztanle) 2014an galde-tuko diete herritarrei Erresuma Batuko kide izaten segi nahi ote duten. Katalunian (7 milioi biztanle) azaroaren 25eko hauteskundeek abertzaleen nagusitasun handia iragar-tzen dute eta Eskoziakoaren antzeko galde-keta egiten saiatuko dira, Espainiako Gobernuaren oztopoen gaintetik. Flandrian (6 milioi biztanle) N-VA alderdiak irabazi ditu 2012ko urriko hauteskunde lokalak eta bi urte baino gutxiagoko tartean egingo diren boz erregional eta federalek gehiago hurbil dezakete independentzia.

Ez da atzo goizeko kontua, Europako zen-bait estatu bezain zaharrak dira haietatik banatzeko nahiak, baina mugimendu inde-pendentistak indarberritu egin dira azkenal-dian. Zergatik?

Ez dugu ordainduko... baina nor gara gu?

“Ez dugu ordainduko” da Europa punta batetik bestera zeharkatzen ari den leloa eta hautestontzietan ere izan du isla. Estatuak zorraren krisia eskubide sozialen kontura konpondu nahi izateak ekarri du boto-emailek bestelako aukeren alde egitea.

Zentro-eskuin eta zentro-ezkerreko ohiko alderdiak zigortzea joera bihurtu da han eta hemen; sistemaren kontrako alder-dientzat ateak zabaldu dira eta ezkerrek emaitza onak atera ditu horri esker, adibi-dez, Grezian (Syriza bigarren indarra da) eta Txekiar Errepublikan (alderdi komunistak irabazi ditu hauteskunde lokalak). Baina eskuin muturreko alderdi batzuek ere larritzeko moduko boto kopuruak atera dituzte (Greziako Urrezko Egunsentia eta Finlan-diako Benetako Finlandiarrak alderdien gorakadak dira horren lekuko, bestek beste).

Belgika bitan banatuko duen artazia N-VA alderdi independentistako kide gisa irudikatu du L'Echo egunkariko iritzi-zintaren egileak. Urriko hauteskunde lokalak irabazi zituen N-VAK.

Esaldi berbera ulertzeko modu asko daude, bistan da, eta maiz diferentzia, ordaindu nahi ez duen “gu” hori nor den zehaztean agertzen da. “Gu” izan daiteke “murrizketek kaltetuta-ko herritarren %99”, ezkerreko mugimen-duek aldarrikatzen duten gisan. Edo izan dai-teke, “bertan jaiotakoak”, alderdi ultra-eskuindarrek erabiltzen duten erretori-karen arabera (“bertakoak lehenengo”, “denentzat iristen ez bada, etorkinek ordain dezatela” eta abar). Hirugarren “gu” bat ere protagonismoa hartzen ari da European: “Gu, estaturik gabeko nazioetako herritarrak”. Barne-gatazka nazionalik ez daukaten Euro-pako estatuetan ezker edo eskuin muturretara doan boto hori, zerbait diferentea bilatzen duen jendearena, aldarrikapen independentis-tak indartzen ari da nazio ugariako estatuetan.

Katalunian murrizketak iritsi direnean “gogoratu” dira asko, beraiena ez den gober-nu baten menpe bizi direla; eta euren ekono-miaren gaineko kontrola edukiko balute agian estuasunak arinduko lirakekeela. Alegia, “guk, kataluniarrok, ez dugu ordainduko”.

CiU, murrizketak eta burujabetza

42.000 milioi euroko zorra dauka Artur Masek gobernatzen duen erkidegoak; gaine-ra, beste 16.000 milioi euroko defizita dauka-la dio Generalitateak. Kataluniak zergak bil-tzen ditu, baina jasotakoaren gehiengoa Espainiako Estatuak eraman eta gastatzen du; eta hori da herritarrek bizi dituzten zailta-sunen esplikazio nagusia, Katalunian zabal-duen dagoen irakurketaren arabera.

“CiUren abildade politiko handia zera izan da: zailtasun horiek ‘lapurreta espainiarra’-rekin lotzea. Argumentu horren arabera, Kataluniak bere borondatearen kontra Espai-niari egindako ekarpena Kataluniaren

BPGren %8koa da”, idatzi du Vicenç Navarra Pompeu Fabra unibertsitateko irakasleak.

Hori kontuan izanda bakarrik ulertzen da nola lortuko duen CiUk, gauzak asko aldatzen ez badira, boto-emaile gehienek sustengua hilaren 25ean, gobernuan egon den bitartean murrizketa gogorrak egin dituen arren. Europa osoan antzeko neurriak hartu dituzten agintariak udazkeneko gaztaina bezala erortzen ari dira, baina eskuin nazionalista katalanak krisiaren kalteak Espainiarekin lotzen asmatu du eskura dauzkan hedabide publikoak baliatuz, eta indartuta aterako da estualdi ekonomikotik.

Fiskalitatean oinarritutako irakurketa horretatik independentismora jauzi handi samarra dago dena den, eta herri mugimenduak egin du, hein handi batean: irailaren 11n ANC erakundeak deituriko manifestazio jendetsuak independentziaren aldeko mezu argia bidali zuen Madrilerara eta Europara, CiUk lortu nahi zuen itun fiskala buruz gain pasaz.

Dena oso azkar doa Katalunian duela bi hilabetetik hona, aurrez egindako edozein kalkululu balio gabe utziz. “Oker ibiliko dira, beraz, hau manifestazio bat gehiago besterik ez dela uste dutenak eta alderdien arteko jokorako balio dezakeela pentsatzen dutenak” idatzi zuen irailaren 11n bertan Vicent Partal

Vilaweb atariko zuzendariak. “Manifestazio honek ez zuen politika aldatzeko eskatzen, erregimena aldatzeko baizik. Letra larriz”.

Flandria, pausoka banaketarantz

Fiskalitatea da auziaren iltzeetako bat Flandrian ere. Egun Belgika osatzen duten bi komunitateen arteko aberatsenean, waloniarrek bidaide astunak bihurtzen ari zaizkien ustea zabaltzen ari da. Bart De Wever N-VA alderdi independentista kontserbadoreko buruak hauteskunde lokalak irabazi zituen gauean mezu zuzena bidali zion Elio Di Rupo Belgikako lehen ministro sozialdemokrata frankofonoari, gogorazaz ez daukala gehiengorik Flandrian eta zerga-eredua berrikusi beharko lukeela. “Egin dezagun lan elkarrekin erreforma baterantz, flandriarrei eta frankofonoari merezi duten gobernu emateko”. Di Rupo berehala bota zuen atzera proposamena udal hauteskundeak besterik ez zirela argudiatuz, baina badirudi horrelako adierazpenekin denbora irabazi besterik ez duela egingo. Flandriaren eskariei erantzutea geroz eta saihestezinagoa bihurtzen ari zaio, N-VA legamia bezala gorantz doan heinean.

541 egunez Belgika gobernurik gabe egon zen 2010eko azken hauteskunde orokorren ostean eta azkenik sozialdemokrata, demo-

FINALAURREKOA

B D G R

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa
2012

ETXAHUN LEKUE
JONE URIA
FREDI PAIA
IGOR ELORTZA
GORKA OSTOLAZA
ARRATE ILLARO

DURANGO

Azaroaren 25ean, domeka
17:30ean - Landako gunea

www.bizkaikotxapelketa.biz



kristau eta liberal flandriar eta waloniarrak batu zituen exekutiboa osatu bazen ere, desorekatuta jaio zen: diputatu frankofonoen %80k babesten du Di Ruporen gobernua, baina flandriarren %49k bakarrik, N-VA kanpoan geratzearen ondorioz. Urriko udal hauteskunderen ondoren, atzerako kontaketa hasi da. Zer egin hurrengo bozetan N-VAk emaitzak hobetzen jarraitzen badu?

Paradoxa badirudi ere, Belgika batua nahi dutenentzat partidua errazago zegoen Flan- driako boto-emaile deskontentuek Vlaams Belang (VB) alderdi ultra-eskuindarraren aldeko hautua egiten zutenean. Immigran- teen kontra eta Europar Batasunarekin mes- fidati agertzen den alderdi hori –eta aurretik hauteskunderetara aurkeztu diren eskuin muturreko alderdi flandriarrak–, aurrelari handi eta motelen antzera, erraz markatzea lortu zuten “*cordon sanitaire*” politika aplikatuz 1990eko hamarkadaren hasieratik. Erakun- deetan eta hedabideetan eskuin muturra baz- tertzeko bat egin zuten ia alderdi guztiek VBren eragiteko gaitasuna murriztuz.

N-VA marginalitate politikora eramatea ez dute hain erraz lortuko. Alderdiak diskurtso liberal-kontserbadore, demokratiko eta euro- pazalea dauka eta flandriarren eta walonia- rren arteko arazoak estatuaren egiturak alda- tuta konpon daitezkeela uste du. Haren helburu nagusia Belgikan erreforma institu- zionalak lortzea da, gradualki estatuko bi komunitateek botere handiagoak izan ditza- ten bakoitzak bere aldetik, Flandria indepen- dente izan arte. Pausokako estrategia hori zai- lagoa da geldiarazten Europaren bihotzean, antidemokratiko agertu gabe.

Erreferendumaren fruitu debekatua eskaini die David Cameronek eskoziarrei. Haien harridurak kontrastea egiten du fruitu berbera probatu nahi eta Rajoyren debekarekin topo egin duten kataluniarrekin, *Financial Times* egunkariak argitaratu zinta honetan.

Denak Eskoziari begira

Zerbait debekatuta dagoela esatea baita huraxe lortzeko grina pizteko modurik onena. Lehenbiziko aldiz Edengo lorategian testatu- tako printzipio hori ongi ikasia du David Cameron Erresuma Batuko lehen ministroak. Eskoziaren aferara hurbiltzeko eduki duen modua pragmatikoa eta arriskatua da aldi berean: erreferendumaren atea zabaldu die eskoziarrei, hori eginda zenbait indepen- dentisten nahiak hoztuko dituelakoan. Dato- zen bi urteak etengabeko hauteskunde-kan- paina bihurtuko ditu Erresuma Batuko alderdi kontserbadoreak, eskoziarrek “Ez” bozka dezaten, nahiz eta duela gutxi eginda- ko inkesta batek erakusten duen eskoziar estatu independentearen aldeko jarrera hobe- a dagoela Ingalaterran Eskozian bertan baino.

Ekonomiak badauka zerikusirik irlaren ipar- aldeko independentismoaren sasoi onarekin, Katalunia eta Flandriarekin alderatuta arrazoi diferenteengatik bada ere. Eskoziako Alderdi Nazionala (SNP) 2007an iritsi zen gobernura, AEBetako finantza krisiak artean mundu osoa ziprztindu ez zuenean. Baina ondoren etorri den ekaitzean ere, SNPk erantzun hobe- a ematen jakin du bost hamarkadaz Eskoziako poli- tika gidatu zuen alderdi laboristak baino, pen- tsio onak eskainiz, ikasketa unibertsitarioak doan izan daitezen ziurtatuz eta jarrera euro- pazalea hartuz. 1990eko hamarkadaren amaie- ran Eskoziako parlamentua berrezarri zenetik, sostengua irabazi du etengabe SNPk, 2011ko bozetan %45eraino iritsiz.

Eta eztabaida luzearen atzetik, 2012ko urriaren 15ean sinatu zuten akordioa Came- ronek eta Alex Salmond Eskoziako lehen

ministroak. 2014ko udazkenean egingo da galdeketa. Emaitzak ez du Eskoziaren etorkizuna zein izango den bakarrik erabakiko, Europako gainontzeko mugimendu independentisten norabidea ere markatu dezake.

Europar Batasunetik ateratzeko mehatxua

Banatze prozesua aurreratu den heinean Eskozian eta Katalunian Europar Batasunetik kanpo geratzearen mamua zabaldu dute estatuak gaur egungo egitura mantendu nahi dutenek. Gaia plazaratzeak ez dauka zentzu handirik Katalunian behintzat, urrats bat ahazten baitu: independentzia lortzeko eskubidea aitortzea. Kataluniak ez dauka gaur egun EBtik ateratzeko inolako arriskurik, Espainiako Konstituzioak debekatzen baitu hori ahalbidetuko lukeen edozein prozesu. Beraz, aukera horretaz hitz egin ahal izateko, erabakitzeko eskubidea aitortu beharko litzaioke aurrena.

Eskoziaren kasuan ere eztabaida interesatu samarra begitantzen da, Erresuma Batuko klase politikoa baita, Cameronen buruko minerako, Europatik geroz eta gehiago urruntzen ari dena. Urriaren amaieran tory eskuindarrenek, laboristen babesarekin, aurrera atera zuten Komunuen Ganberan Europar Batasunera bideratutako diruak murrizteko eskatzeko mozioa. Loteslea izan ez arren, sekulako kolpea izan da Camerontzat, alderdi barruan etsai franko daukala agerian uzteaz gain, irlaren eta kontinentearen arteko kanala amildegi bihurtzen baitu. Britainiarren euroeszeptizismoak historia luzea dauka eta kontinenteko gainontzeko estatueta baino errotuagoa dago. Baliteke Eskoziak Europar Batasunean jarraitzeko modurik onena, hain zuzen, Erresuma Batutik aldentzea izatea –nahiz eta Eskozian bertan ere batasunetik at gusturago leudeken herritarren ia erdiak, inkesten arabera–.

Gainontzean, Europako Batzordeak uko egin dio gaiari buruzko iritzia argi eta behin betikorik eskaintzeari, kide diren zenbait estatutako



Eskozia, Katalunia eta Flandria Europar Batasunetik kanpo geratuko ote dira independentzia lortuz gero? Mehatxu hori irudikatzen du Herbehereetako Trouw egunkariko zintak.

zatiak independente bihurtzeko aukerak “erabat hipotetikoak” direla esanez. Mota askotako interpretazioak egin dira, independentzia lortuko luketen nazioek dagoeneko kide izateko baldintzak betetzen dituztenez, zuzenean EBko kide izango liratekeela diotenetik, sarbidea eskatu beharko luketela uste dutenetaraino –hala izanez gero, puska bat galdu duen estatuak mendekua hartu ahalko luke sarbidea ukatzeko dauzkan tresnak erabiliz–.

Fikziotik asko duten eztabaida horiek momentuz baztertu eta gertagarria denari heltzea izango da egokiena: 2014ko Eskoziako erreferenduma izan daiteke Europako estatu berrien lasterketa abiaturako duen irteera seinalea. Alfred Heinekenen pieza txikiko puzzle bihurtuko ote da Europa? Une honetan sinestea kostatzen da, baina antzinakoak diruditen estatuak ere noizbait sortu ziren eta gehienak, ez oso aspaldi. Europan gehien agintzen duen Alemania bateratua, Asier Illarramendi Realeko jokalaria baino gazteagoa dela ahazten zaigu sarri. Mugak eta estatu egiturak itxuraz baino aldakorragoak dira, bistan denez. ■



EUSKARA ZERBITZUA

Herriko plaza z/g 20100 Errenteria
Telf. 943 44 96 13 euskara@errenteria.net



UDAL EUSKALTEGIA

Miguel Zabaleta 14, 20100 Errenteria
Telf. 943 44 96 80 euskaltegi@errenteria.net



ERRETERIAKO UDALA

ROSLYN FRANK

«‘Inorekin loturarik ez duen hizkuntza, zertarako aztertu?’ diote Iowan»

Kalifornia, Iowa, Chicago... eta berdin Massachussets, Illinois edo New Jersey. Hemen bertakoak bagenitu bezala kontatzen dizkigute hango tornado, urakan eta uholak. Beharrik, alderantziz ari da Roslyn Frank, gureak han-hemen kontatzen.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Dani Blanco

Euskarazko akatsak zuzendu niri, e.

Akatsak egiten dituzu, beraz?

Noski! Hitz egiten hasten naizenean, besterik ez.

Hizkuntzalariek hizkuntz akatsik ez zenutela egiten uste nuen.

Bai, horixe!

Zer da hizkuntz akatsa?

Aditza gaizki jokatzea da, adibidez. Nire kasuan, belarriz ikasi dut euskaraz, eta, beraz, hitz egiten hasten naizenean akatsak egiten ditut. Hizkuntzalaria naiz, jakina, eta badut hizkuntzaren berri, baina esan dut, hitz egiten hasten naizenean... Kalifornian sortu nintzen, 1939an. Handik Iowara joan nintzen, Chicago ondoan. Depresio Handia izan zen 1929an, eta jendea Mendebaldera zihoan. Gu, berriz, Erdi Ekialdera, aitaren zein amaren familiak Iowan ziren-eta. Hantxe bertan ikasi nuen hizkuntzalaritza. Behartuta nengoen, hizkuntzalaritza eta literatura biak batera zetozelako. Bi arlo ezberdin dira, baina orduan ez ziren bereizten, garai hartan esan nahi dut. Orain ikasleek biak bereizteko aukera daukate, baina garai hartan ez.

Zer duzu nahiago, linguistika ala literatura?

Ez da erraza erabakitzen. Linguistikak kulturarekiko lotura du, eta literaturak, eman dezagun, ahozkoak, zer erakusten du, kultura baikik? Literatura hizkuntzaren eraginez egiten

da, bestela ez da posible. Hizkuntzalaritzak, berez, hizkuntzaren barne-sistema aztertzen du, baina nire linguistika moduak besterik aztertzen du, nirea linguistika kognitiboa da.

Zer duzu linguistika kognitiboa?

Hemen ez da batere ezagutzen. Zahar-zaharra ere ez da, hori egia da. Duela hogeitahogei bost urte hasi ziren. Hemen Chomskyren hizkuntzalaritza nagusitu da, hau da, hizkuntza guztien atzean dauden arau unibertsalak bilatzeko lana. Gramatika sortzailea, nahi baduzu. Euskara, horretan, unibertsal horiek aurkitzeko tresna dute, ez dute euskara aztertzen hizkuntza beraren barruan dauden balioak aurkitzeagatik. Nire linguistikaren helburua, aldiz, horixe da, euskara bera aztertzea, sakon-sakonean gordetzen duena ikeretzea, Chomskyren gramatika atzeratua dago gaur egun, arlo hori gero eta txikiagoa da.

“Euskara beraren balioak aztertzea” esan duzu. Gurea hizkuntza berezia da horretan, ala hizkuntza denak dira berezi?

Hizkuntza guztiek dituzte berezitasunak, baina euskararen kasua ezberdina da nire ustez. Oso hizkuntza zaharra da, eta, bestalde, ez da askorik aldatu. Adibidez, loa. “Lo egin dut”, entzuten da askotan, baina, horrekin batera, baita “loak hartu nau” ere. Hau da forma zaharrena, eta, guztiz berezia. Beharbada, beste bi hizkuntzatan agertuko da esateko modu hori. “Loak hartu nau”. Berak ni hartu nau, alegia. Oso modu berezia da,



NORTASUN AGIRIA

Roslyn Frank (Kalifornia, AEB, 1939) Linguistika eta Literatura ikasketak eginak Iowako Unibertsitatean, Espainiera eta Portuges departamentuko irakasle eta ikertzailea izan da bertan. Aspaldi du euskararekin eta Euskal Herriarekin lotura, eta hainbat eta hainbat lan argitaratu ditu gure kulturaz. Hizkuntzak atzean, hondoenean, gordetzen duen arima du ikergai, etnografiatik eta antropologiatik ez aparte. Bide horretan, Iruña-Veleiaren inguruko auziak arduratzen du gaur egun. Urtean behin edo bitan honako bidaldia egiten du euskaldunberri honek.

munduko hizkuntzen artean. “Loak hartu nau”, “lokartu naiz”, “lo egin dut”, azkeneko hau kanpotik hartutako forma.

Horrek zer esan nahi du, mundua ikusteko modua ere aldatu egin dugula?

Jakina. Hizkuntzaren bidez garaiko mundua nolakoa izan zen ikusten da, nola ikusten zuten orduko euskaldunek mundua. Euskarak euskaldunek mundua ikusteko zuten ikuspegia dakarkigu. Dialekto asko dituenek, euskalki batean agertzen ez den halako forma bat beste batean agertzen da. Aberastasun hori du.

Horregatik jo izan duzu koloreak aztertzeraz, edo zerbakiak, Patziku Perurenaren bidean...

Hori da. Perurenak linguistika kognitiboa egiten du, berak ez badaki ere. Ezagutzen dut Patziku, eta ez daki zer egiten duen ere! Bere liburuak oso onak dira, hizkuntzaren sakonera jotzen dute.

Hemengo hizkuntzalariek harrera onik egiten diote linguistika kognitiboari, zure azterketei?

Edo ez dute ulertzen, edo bost axola zaie. Oso txori arraroa natzaie, dudarik ez horretan. Iowan, edo Australian, ez da hain zientzia arraroa, baina Europan ez pentsa. Dena dela, gero eta indartsuago dago linguistika kognitiboa. Hemen, Iraide Ibarretxe –Zaragozako Unibertsitatean–, Koldo Garai eta hirurok ari gara bide hau egiten.

Etnografiari loturik ikusten dut nik linguistika kognitiboa. Eta ez dakit zuzen ari naizen ere...

Bai, hizkuntzaren etnografia, beharbada, edo neurolinguistika, nahi baduzu. “Loak hartu nau” esateak beste era batera pentsatu dela esan nahi du. Garai batean euskaldunak ezberdin ikusten zuten mundua, gaur ez bezala, diferente. Nola esaten da, bada, ingelesez? “*I am sleep*”. Alegia, neuk agintzen dut loaren gainean, neu naiz kapitaina. Atzean dagoen



eskema aurkitu nahi izaten dut nik. “Han-hemenka” esaten da euskaraz. Ingelesez, alderantziz, “*here and there*”, kontrako norabidean! “Joan-etorri”, hemen, eta “*come and go*” ingelesez. Alderantziz berriz. Hainbat adibide dira, eta, euskaraz, beti, kanpotik barrurakoa da mugimendua, besteengan pentsatzen duzu lehenengo. Hori da norabidea. Ingelesezko terminologian, Dialogic Subjectivity da, elkarrekiko nortasuna, nolabait esateko. Kontua da euskaldunak modu horretan pentsatzeko era duela, gutxi gorabehera.

Horrela pentsatzen segitzen dugu, ala pentsatu dugu iraganean?

Horretan segitzen du, gutxi gorabehera. Badakizu, batzuek lo egiten dute, eta beste batzuk, berriz, loak hartzen ditu, kar, kar, kar. “Goseak nago”, “gose naiz”, “gosea daukat”...

Kalko linguistikoa da, besterik gabe, ala hori baino gehiago, nola-halako hizkuntz kolonizazioa?

Kasu honetan, esateko modua, mundua ikusteko modu bihurtzen da. Hemengo hizkuntzalariek ez dute horrelakorik ikusten, ordea, eta ez diote kasurik egiten. Haien artean ez da existitzen! Zer ari zara hizkuntz egiten ari zarenean? Nire ustez, Elkarrekiko Nortasunaren arloa da hori.

Gure filologia fakultateetan arrotz ote da gaia?

Hitz egiten ere ez gaiaz. Aldiz, European, jende asko dabil horretan. Euskara altxorra da horretan, euskaldunak lehen zuen ikuspegi berreskuratzeko tresna aparta da. Beste hizkuntzetan ez da horrelakorik ikusten, ez da posible. Euskarari dagokionez, berriz, ez dakit lehenengo ikuspegi hori berreskuratzeko posible den, bakoitzak erabakiko du, “lo egiten” esan nahi duen, edo “loak hartu”.

Ez dakit, bada. Zu ari zara, lowatik etorria euskaraz, baina hemen, ezker-eskuin, ez da entzu-

Burgos, beldurra

“Burgosen tren hartu eta errazena Donostiara etortzea zen. Horregatik etorri nintzen hona, nire lehenengo bidaldi hartan. Eta euskara entzun nuen. Burgosen, hango unibertsitateko irakaslearekin hizketan parte batean, eta isilik egoteko keinua egin zidan halako batean. Beldurra zen nagusi, nahiz eta oso gai arruntei buruz ari ginen. Baina beldurra irakasle hark”.

ten gaztelania edo frantsesa baizik. Nahiko lan badugu euskaldunak euskaraz hitz egin dezan, ondo egin dezan ondoren, euskararen mundu ikuskeraren jabe izan dadin, azkenik.

Kar, kar, kar. Baliteke, bai. 1974an etorri nintzen lehenengo aldiz Euskal Herrira, Linguistika eta Literatura ikasia nintzen, doktore tesia egina, Mario Vargas Llosari buruz. Gustuko idazlea nuen, gutxi gorabehera, baina, batez ere, zer edo zer egin behar nuen, ikerketa, eta haren nobelagintza aztertu nuen. Zerikusirik ez du orain egiten ari naizenarekin. Garai hartan, Iowako unibertsitateak bazuen programa bat bertako ikasleak kanpoko unibertsitateetan ikastera bidaltzeko, eta halaxe etorri nintzen.

Burgosera joan zinen, eta handik Donostiara.

Bai. Linguistika liburuetan beti aipatzen zen hemen bazela euskara. Aipatu besterik ez zuten egiten, baina aipatu, behintzat. Garai hartan bertan, *On Kixote Mantxako* irakurri nuen, eta han *el vizcaíno* [bizkaitarra] agertzen zen, pertsonaia. Oso bitxi hitz egiten zuen, alderantziz, euskaraz pentsatzen zuen baina gaztelaniaz mintzatzen, oso modu arraroan. *On Kixote*-n bertan, inkisizioari buruzko pasarteak agertzen dira. Eta nik, neure artean, ez nekien Cervantesen kontuak ziren, ala benetan horrela izan zen inkisizio hura. Eta gai horretaz liburuak irakurtzen hasi nintzen, aztertzen. Horietako batean, Alemaniako batean, irakurri nuen inkisizioak bere ondusunak kendu zizkiela *begiñei*. Kontua zen begiñe zer zen jakitea. Ikertzaile haren arabera, berrehun mila emakume ziren European Begin edo begiñe mugimendu horren parte. Hitz horren jatorria zein ote zen pentsatzen hasi nintzen. Emakume horiek sendagile ziren, eta inkisizioak erre zituen, edo lekuak husteratu behartu, edo klandestinitatera baztertu, bilkurak basoan egitera bultzatuz eta abar. “Sorginak!”, esan nion neure buruari.

duen hizkuntza, zertarako aztertu?”. Hori da Iowan esaten didatena.

Zu, aldiz, beti Euskal Herrira itzulika, euskara aztergai harturik beti.

Burgosera lanera joaten nintzen, eta handik hilabete pasatzera etortzen nintzen Donostia-ra. Urte sabbatikoak ere izan nituen, eta orduan beti hona etortzen nintzen. 1980an euskara ikasten hasi nintzen, Ilazki euskaltegian, Iñaki Hernandez eta PNVko horrekin...

...?

Txabarriekin [Jose Juan Gonzalez Txabbarri]. Zeretik hasi nintzen. Ordu arte, Azkueren hiztegitik ikasitako hitz batzuk nekizkien. A-tik hasi nintzen. Ilazkin sartu eta aste bat edo bi egin nituen. Nik barnetegia nuen helburu, eta halaxe esan nien. Hainbeste tematu nintzen, azkenean “joan zaitez!” esan zidaten, nahiz eta normalean hirugarren maila bat eskatzen zuten. Iñaki Hernandezi esan nion: “Utzi, faborez. Ezin dut ezer esan, isilik egongo naiz, baina entzun egingo dut”. Eta horrela joan nintzen Zegamara. Bi aste egin nituen han, hitzik egin gabe, “kaixo” eta “agur” besterik ez. Ondoren, beste bi aste egin nituen bertan, eta orduan bai, pixkanaka-pixkanaka hitz egiten hasi nintzen. Handik



Eta begin hitza?

Hitz hori aztertzen hasi nintzen gero. Ikusi nuen hizkuntza indoeuoparretan ez zela azaltzen. Jakin nuen kataro mugimendurekin lotuta zegoela. Eta, horrela, Akitaniara iristen gara. XI. mendeko kontuak, Akitanian. Eta han desagertzen dira aztarnak. Eta zer hizkuntza hitz egiten zuten Akitanian garai hartan? Euskara! Aztertu eta aztertu, erantzuna aurkitu nuen: begiñe belargina da, belargilea. Hemengo zen mugimendua, Erdi Arokoa, Europa osora zabaldu zena, hemengo zuen izena. Hau dena idatzita dago, eta euskaraz publikatuta.

Hemengo hainbat lagun hartu izan dituzu Iowan. Bittor Hidalgo, Andolin Eguzkitza, Lourdes Oñederra... Zer zioten zure lana irakurtzean?

Ez zuten irakurtzen. Ez zuten horretarako interesik. Belarginen mugimendua Europa osoan zabaldua egon garai batean, eta hemengoei bost axola. Euskaraz idatzi, eta kasurik ez. Ingelesez idazten dut askotan, kanpoan interes handiagoa dago-eta. Gaia ezagunagoa da atzerrian, Euskal Herrian baino.

Iowan zer diote zure lankideek?

Haiek ere nire kontra. Han Cervantes eta beste gai asko irakatsi ditut, baina euskara beti hori izan dut, nire gogoia izan da, eta intereseko gaia, eta departamentuko kideek: “Baina zergatik ari zara beti euskararen inguruan? Hizkuntza horrek ez du zertarako balio!”. Erabat baztertuta egon naiz. “Beste hizkuntza batekin loturarik ez

Gabriel Aresti

euskaltegia eta akademia

Neguko Barnetegiak

Prezio bereziak langabeentzat

HABEko azterketetarako ahozkoak prestatzeko Bilbon eta Bakaikun

<p>Barnetegiak</p> <p>Azaroaren</p> <ul style="list-style-type: none"> - 12tik 16ra - 19tik 23ra <p>Abenduaren</p> <ul style="list-style-type: none"> - 3tik 9ra - 5etik (afaria) 9ra - 5etik (afaria) 12ra 	<p>Asteburuak</p> <p>Azaroaren</p> <ul style="list-style-type: none"> - 9tik 11ra - 16tik 18ra - 23tik 25era - 30etik <p>abenduaren 2ra</p>
---	--

*

San Bizente 2 - 4.a - Bilbo - Tel: 94 423 75 91 - bulegoa@gabrielaresti.com

www.gabrielaresti.com

ROSLYN FRANK

AZKEN HITZA

Obama Romney

"Romney presidentziara ez iristea espero nuen, baina Obamak ez ditu bete gure itxaropenak. Gehiago espero genuen. Orduan, zer egin? Bata txarra dugu, bestea txarragoa!".



urtebetera edo, beste hamabost egun egin nituen Abaltzisketan. Eta kito.

Besterik ez? Eta nola ikasi duzu hitz egiten, nola eutsi diozu ikasitakoari?

Tira, horra Andolin [Eguzkitza], Iowara joan zena, eraman nuena. Lizentziatura egin eta zuzenean joan zen Iowara. Andolinek asko maite zuen bizitza, asko. Dena ikasi nahi zuen. Iowan zegoela, zinemara, operara... Leku guztietara joaten zen, joan nahi izaten zuen, dena harrapatu nahi zuen Andolinek. Beste euskaldun batzuk ere izan ditut etxean, bizitzen, eta haiekin praktikatu izan dut: Oñederra, Jose Inazio Hualde...

Eslovenian izan zara Euskal Herrira baino lehen. Biltzar halako batek ekarri zaitu AEBetik Europara.

Bai, astronomiaz eta etnoastronomiaz izan da biltzarra.

Horrek ikustekorik badu hizkuntzarekin?

Bai.

Bai?!

Bai... Nahi baduzu jakin, orduak beharko genituzke horretaz hitz egiteko.

Hurrengo batean beharko du!

Hurrengo batean.

Iruña-Veleiaz ere hurrengo batean...

Bai. Urtean behin edo bitan etortzen naiz. Iruña-Veleiako ondo ateratzen baldin bada, hitz egingo dugu. Isilik dago gai hori, beldur handia dago... ■



Hamaika
ikusteko, bizitzeko

**Independentzia
eskura**

"Gure nortasuna hamaika izatea delako"

ERREFUXIATUAK ALEMANIAN

Asilo egoeran daudenak lege bidegabeen aurka altxatu dira

Euren herrialdeetako jazarpen politikotik ihesi, Alemanian asiloa eskatzen duten errefuxiatuen aldeko mobilizaziorik jendetsuenak izan berri dituzte Berlinen. Egoera latza jasaten ari direla salatu dute, baldintza txarreko erresidentzietan dituzte eta debekatuta dute horietatik mugitzea. Protestetan izan gara, kontuok errefuxiatuen ahotik entzuten.

| MARTIN MENDIZABAL GARAI |

“EZ DAUKAGU lan egiteko ez hizkuntza ikasteko aukerarik. Ez daukagu egokitu diguten herritik irteteko aukerarik”. Houmer Hedayatzaddek errefuxiatu iraniarraren hitzak dira. Asilo eskaera duela urtebete inguru egin zuen eta oraindik erantzunaren zain dago. “Batzuetan bi hilabete pasa daitezke, baina badira eskaeraren erantzuna jaso arte hamar urte itxoitzen egon direnak ere”. Bitartean zer? Lan egiteko debekua kasu askotan, hizkuntza ikastaroak hartzeko aukerarik ez eta lager

delakoetan bizitzeko mandatua. Asiloa eskatzen dutenentzako erresidentziak dira lagerrak, baldintza oso eskasekoak: intimitaterik ez, pitzadurak paretetan, itoginak... Halako baldintzetan “zure barnean zer edo zer galzten duzu, zure izatearen zati bat”, diosku Hedayatzaddek-ek. Duela urtebetetik bizi da Alemanian. Iranetik alde egin behar izan zuen, bi urte eta erdiko kartzelaldira kondenatu baitzuten. “Oposizioko kide izategatik kriminal gisa tratatzen nau Irango Gober-

Alemania osora zabaldu da Bavarian abiatutako mugimendua. Urrian, 6.000 lagunetik gora bildu ziren Berlinen, asiloa eskatu dutenen eskubideen alde.



ERREFUXIATUAK ALEMANIAN



nuak, publikoki egiten den edozein gauza lan politikotzat hartzen dute. Supermerkatu batean prezioak asko igo dituztela esaten baduzu edo taxi-gidariarekin mintzatzen bazara, berehala atxilotuko zaituzte kritika politikoa argudiatuta”.

Errefuxiatuak Alemaniara iristen direnean, erresidentzia handi batzuetan pilatzen dituzte lehenik (6 astetik 3 hilabetera arte) eta ondoren, herri txikietan sakabanatzen dituzte. Omid Moradian Kurdistanekoa da eta jada hiru urte daramatza Alemanian. Orain arte Regensburg hiritik hogeit bat kilometrora dagoen lager batean bizi izan da mundutik isolatuta, eta joan den uztailan egoeraz nazkatuak Regensburgeko kanpatuekin bat egin zuen. “Duela hiru hilabetera arte aleman guztiak arrazistak zirela uste nuen. Baina protesta hauean jende asko ezagutu dut eta alemaniarrez nuen pentsamoldea aldatu dut, begiak ireki dizkit”.

Legedi alemaniarra, halere, ez dute alde: Residenzpflicht izeneko arauak debekatu egiten die asilo eskaera egiten duten atzerritarrei egokitutako erresidentzia eremutik mugitzea. “Alemaniak daukan salbuespen lege bat da, Europako beste inongo herrialdetan aurkitzen ez dena”, azaldu digu Karin Prätörrik; hogeit urte daramatza errefuxiatuen aldeko borrokan. Legeak dio asiloa eskatzen dutenek alojamentu komunetan egon behar dutela eta mandatua urratzen duenak urtebeteko kartzela zigorra jaso dezake. Aspalditik, Europa osora hedatu nahi du araua Gobernu federalak, arrakastarik gabe. Alderdi nazionalsozialistak 1938. urtean ezarri zuten Residenzpflicht legea, nagusiki abokatu juduei zuzendua –Alemanian bizi ziren herritar judutarren defentsa galarazteko—. Egun, sarritan helburu argia du legeak: atzerritarrek herrialdetik alde egitea.

Ezker-eskuin:
Houmer Hedayatzadek errefuxiatu irandarra, Karin Prätörri errefuxiatuen aldeko aktibista, eta Omid Moradian kurdua. Hiru urte lager batean isolatuta eman ditu Moradianek.

Deportazioak bertan behera uztea, asilo eskaera egiten dutenen izaera politikoa onartzea, Residenzpflicht legea indargabetzea, eta isolamendu erresidentziak ixtea eskatzen dute

Lagerretan isolatu eta bertatik mugitzea debekatzeko jendea txikitzen duela dio errefuxiatuentzako

Bavariako aholkularitza taldeko kide Alexander Thal-ek: “Etorkizuneko itzaropen eta proiektu guztiak suntsitzen ditu. Etxe hauek egona naiz, errefuxiatuak bisitatzen, eta bi ordu baino ez egon arren depresioak jota atera izan naiz. Pentsa 25 urte daramanak!”. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren arabera, hiritar orok “edozein momentutan dauka hiriz aldatzeko eskubidea eta bere erresidentzia eremua/hiria hautatzeko aukera”. Ez dirudi Alemaniako legediak berdin pentsatzen duenik.

Eskubideen defentsan kanpatuta

Pasa den urtarrilean, Mohammad R. errefuxiatu irandarrek bere buruaz beste egin zuten Bavariako Würzburg hirian. Ez zen egoera isolatua izan, azken urteetan ugari izan baitira Alemanian hautu hori egin duten errefuxiatuak, baina gertaerak errefuxiatuen aldeko mugimendua sustraitu zuten Bavarian. Martxoan, Würzburg hirian kanpaldia abiatu zuten, euren egoera publikoki salatuz. Pixkanaka, oihartzuna hartu zuten mugimenduak eta Düsseldorf, Nürnberg, Passau eta Regensburg hirietara zabaldu zen. Eskubide urraketan inguruko argazki erakusketak, hitzaldiak, kanpaldiak, gose grebak... izan dira hilabeteotan. Iragan martxotik ekainera bitarte, Alemaniako errefuxiatuek hiru gose greba gauzatu zituzten Würzburgen. Elkartasuna adierazteko, beste zazpi hiritan baraualdiak errepikatu zituzten.

Irailean, mugimendua Alemanian osora zabaltzeko xedez, lau asteko martxa egin zuten, 600 kilometro Würzburgetik Berlinera. Eta paraleloki, beste autobus martxa batek ipar-mendebaldea zeharkatu zuten. Talde neo-

naziekin tirabirak ere izan zituzten bidean (batik bat Thüringen, Sajonian eta Potsdamen). Lehengo hilabeteko manifestazioa izan zen puntu gorena, Berlinen bertan: 6.000 lagunek gora bildu ziren errefuxiatuei elkartzasuna adierazteko. Hala ere, Hedayatadek-en iritziz are handiagoa izan zitekeen mobilizazioen dimentsioa, baina beldur dira errefuxiatuak: “Asiloa eskatu dutenak jakitun dira Residentpflichtig-a errespetatzen ez badute haien herrialdeetara deportatzeko arriskua areagotzen zaiela. Gobernuak xantaia egiten die”.

Martxak orokorrean eragin mediatiko handia izan du. ARD eta ZDF telebista estatalek eta *Der Tag/Spiegel* edota *Sueddeutsche Zeitung* egunkariak, esaterako, leku garrantzitsua eskaini diote orain arte herritarrentzat ia ezezaguna zen gai honi. Dena den, eztabaida aurretik zetorren: 2010ean Pro Asyl errefuxiatuen aldeko taldeak epaitegietara jo zuen, legearen arabera edozeinek –bertako nahiz atzeritar– gutxieneko diru-laguntza jasotzeko eskubidea duela aldarrikatzeko. Izan ere, Hartz IV legeak dio langabezian dagoen herritar orok etxebizitza izateko eta hilean 374 euro jasotzeko eskubidea duela, baina oso bestelakoa da asiloa eskatzen dutenen egoera. Lagerretan dituzte eta hilean 40 euro ematen dizkiete. Gainontzeko diru-laguntza zerrenda mugatu batzuetatik aukeratu dezaketen janari eta arropatan jasotzen dute. Uztailean ebatzitako epaiaren ondorioz, orain eskudirutan 134 euro jasotzen ari dira, baina errefuxiatuek diote ez dela nahikoa. Gutxienez, politikariak isilpean zituzten lege hauek iritzi publikora eramateko balio izan dutela dio Prätoria-k. “Gainera, sortzen ari den presio hau gobernuak beste lege batzuk aldatzera behartu dezake, Residentpflichtig-a kasu”.

Egungo asilo politikaren aurkako mugimenduak lau eskakizun nagusi ditu aldarri: deportazio guztiak bertan behera uztea; asilo eskaera egiten duten errefuxiatuen izaera politikoa onartzea; Residentpflichtig legea

40.200 asilo eskaera

Urtero errefuxiatu ugari egiten du asilo eskaera Alemanian. Migrazio eta Errefuxiatuen Bulego Federalaren datuen arabera, 2011. urtean 45.741 lagunek egin zuten eskaera, eta aurten, irailera bitarte, 40.201 dira dagoeneko. Kopurua handituz joan da azken bost urteotan eta Afganistan da gehien jatorria; eta ondoren, Irak, Serbia eta Iran, hurrenez hurren.

“Lagerretan bi ordu baino ez egon arren depresioak jota atera izan naiz. Pentsa 25 urte daramanak!”

Alexander Thal,
errefuxiatuen aholkularia

indargabetzea; eta isolamendu erresidentziak ixtea. Berlineko manifestazioaren ondoren ez dira besoak gurutzatuta geratu eta hainbat ekintza burutzen jarraitu dute. Urriaren 15ean, esaterako, Nigeriako enbaxada okupatu zuten eta poliziak 28 lagun atxilotu zituen bertan. Aipatzekoa da Alemaniak Nigeriarekin akordioak dituela herrialde germaniarrera iristen diren paperik gabeko errefuxiatuak hara berriz deportatzeko, bere garaian Gadafiren Libiarekin zituen akordioen gisan.

Residentpflichtig legea Bundestagera

Urriaren 24an, Brandenburgoko Atean zortzi egun iraun zituen gose grebari ekin zioten hogei bat lagunak. Poliziak kanpalekua desegin eta lo zakuak kendu zizkieten, eta estalperik gabe pasa behar izan zituzten zortzi egunak. Protestek fruituak eman dituzte eta hil honetan Bundestag Alemaniako parlamentura iritsi dira haien eskakizunak, Die Linke ezkerreko koalizioaren, Die Grünen berdeen eta SPD alderdi sozialistaren bidez. Hala, Residentpflichtig lege polemikoa izan dute hizpide parlamentariak, nahiz eta alderdien gehiengoak neurria babesten duen, errefuxiatuak kontrolpean izateko ezinbesteko tresna dela argudiatuta. Mugimenduko kideek argi dute, Brandenburgoko atean jarraituko dute, Gandhiren aipua buruan: “Lehenengo ez ikusiarena egingo dute, ondoren barre egingo dizute, gero eraso, eta azkenean irabazi egingo duzu”. ■



INAKIBEREZIARTUA
Enbalajeak · Biltegitratzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza

25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com · mjm@inakibereziartua.com


ogiaren egia

Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin

Galparsoro
OKINDEGIA

Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074



MADDI SOROKA

**Baleren
Bakaikoa
Azurmendi**



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Banku txarra, ona ezin izan

ABUZTUAREN 31n argitaratu zen Errege Dekretua, non jende askoren ahotan dabilen Banku txarra eratzeko oinarriak finkatuta azaltzen diren. Banku honek finantza sistemak bere esku dituen aktibo kutsatuak bereganatuko ditu. Aktibo hauek finantza erakunde hauen esku geratu diren etxebizitzek, eraikitzeko lur sailek edo eraikuntzako sustatzaileek ordaindu ezin ditzaketan maileguek osatzen dituzte. Higiezin agentzia erraldoia izango da.

Aktibo hauek gainbalioetsiak zeuden, eraikuntzako burbuilaren ondorioz. Bestalde, burbuila hau ez da bakarrik eman etxebizitzetan, hau da, sektore honek atzetik daramatzen azpi-sektoreetan ere pairatu dute burbuila: lur sailen prezioetan, eraikuntzako materialetan eta abarretan.

Banku txarra FROBek (Banku Birmoldaketa Bideratzeko Funtsa) eta Espainiako Bankuak kontrolatuko dute, eskumen handi eta zabalekin gainera. Eskumen horien artean, aktibo txarrak baloratzea izango da, gero Banku txarrera transferituko direnak

Aktibo kutsatu hauek finantza erakundeen balantzetan daude, baina berauen balioa balantzeek jasotzen dutena baino askoz apalagoa da. Hots, gaur egungo merkatu prezioa kontabilitateetan agertzen denaren azpitik dago eta bankuen egoera ekonomiko erreala erabat itxuraz aldatuta. Beraz, balantze horiek konpondu behar dira, bankuak eta kutsak porrot egiten utzi gabe, Amerikako Estatu Batuetan (AEB) behin baino gehiagotan gertatu den bezala. Eta ez Europar Batasunean (EB) bezala, poorrota ekiditeko estatu laguntzak behar baldin badira ere. EBko beste kontraesan bat hori baita: enpresentzat estatu laguntzarik ez, bai ordea diru erakundeentzat.

Neurri hori hartzeko agindua ez dator Espainiako Gobernutik, EBk ezarritakoa da, Espainiako finantza sistema kolonia baten moduan funtzionatzen baitu. Espai-

niako Bankuari eta Gobernu zentralari finantza eskumena kendu zaie eta erreskaterako dirua jaso nahi bada, 100 mila milioi eurokoa, EBk esaten duena zehatz-mehatz bete beharko du Espainiak.

Espainiako finantza sistema bideratzeko berorren erreforma ugari egin dira, baina arazoez hor diraute eta sortutako kalteak atzerriko finantzeara heldu dira. Izan ere, sistema horrek aspaldidanik estatuen arteko mugak gainditu zituen eta funtzionamendu txarraren ondorioak Alemania edo Frantziara ere heldu dira, nahiz egin zitzaizkien estres probak Espainiako bankuak osasuntsu zeudela azpimarratu zuten.

Banku txarra FROBek (Banku Birmoldaketa Bideratzeko Funtsa) eta Espainiako Bankuak kontrolatuko dute, eskumen handi eta zabalekin gainera. Eskumen horien artean, aktibo txarrak baloratzea izango da, gero Banku txarrera transferituko direnak.

Kontrol lanetan arituko diren bi erakunde hauen ahulezia beren aginte organoetan dago. Izan ere, Espainiako Bankuaren portaera begi-bistakoa da. Azkeneko gobernadoreak banku eta kutxen agindu orori amore ematen zion. Azken finean, finantza erakundeen presio taldeen morroia zen. Oraingo gobernadore berria gerora epaituko dugu.

FROBen agintaritzak kargu politikoez osatzen dute. Kargu politikoez hauek, orain arte bederen, interes ekonomikoen menpe egon dira eta gauzak asko ez badira aldatzen, ildo beretik jarraituko dute.

Bestalde, Banku txarraren kapital soziala FROBek erdia baino gutxiago izango du eta gainontzekoa finantza erakunde pribatuek. Haatik, ez da zaila ondorioztatzea noren interesak defendituko dituzten kapital sozialaren ordezkariak, batik bat aktibo txarrak, orain eta etorkizunean, baloratzerakoan. Bestalde, mozkin oparoak izateko beraien salmenta prezioak burbuila berri batek harrapatu beharko ditu.

Tartean sortuko diren galarak hiritarron zergen gain eroriko dira eta egindako zor horiek nork ordainduko dituen ez zaio axola EBri. ■





AGIRREK ISILTZEN DITUENAK KATALUNIAZ...

"ESKOZIAK ETA KATALUNIAK EZ DUTE
ZER IKUSTEKO, KATALUNIA EZ BAITA
ERRESUMA INDEPENDENTEA IZAN "

ERRESUMA INDEPENDENTEA IZAN,
ARMEN BORTXAKERIAZ INBADITU USURPATU
ETA OKUPATU ZENUTEN BESTE HURA,
ORAIN 500 URTE... NOLA ZEN... ?

"KATALUNIA INDEPENDENTEA,
ESTATU BANANEROA LITZATEKE "

HAUTURA, HOBE ERREPUBLIKA
BANANEROA, MONARKIA BANANERO
ETA ARROTZA BAINOAGO...

...KONTATZEN DITUENAK BAINO LARRIAGOAK
IZATEN DIRA.

Fermin Erbiti

KAZETARIA ♦



JOSU SANTESTEBAN

UPNko norbaitek ezagutuko al du istorioa?

ATARRABIAKO kultur etxe dotorea leporaino beterik ospatu berri dugu Euskalerria Irratiaren 25. urteurrena. Irratiko martxari eutsiz hitza, musika eta iragarriak tartekatu zituen ekitaldiak Gobernuak behin eta berriro ukatu dion lizentzia aldarrikatzeko ere balio izan zuen.

Kasualitatez, Atarrabiara abiatu aurretik garai bateko paperak arakatzeko aritu nintzen, lantegi dudan Iruñeko etxerik zaharreneko istorioak biltzen. Kontuen Ganberaren Antsoleaga karrikako egoitzaz ari naiz, historian barna hainbat kultur ekimenen lekuko isila, horietako batzuk euskarari lotuak.

Campion, Iturralde y Suit, Altadill eta XIX. mendeko beste nafar intelektual batzuek Monumentuen Batzordea sortu zuten bertan, lurraldeko eliz, monasterio, jauregi eta balio handiko etxeak babesteko asmoz. Jakina denez, garai hartan Nafarroako erdialdean galtzen ari zen euskara altxorrik baliotsuena zelakoan, talde hark eta etxe berean Euskara Elkargoa martxan jarri zuen 1877an, hizkuntza bultzatu eta indartzeko.

Oso jende gutxi daki, ordea, bertan Nafarroako Diputazioak gerra ondorengo lehenbiziko euskaltegi publikoa sortu zuela, noiz eta 1949an, frankismoaren garairik ilunenean. Jose Angel Zubiaurren proposame-

narekin bat egin zuten beste diputatuak, *“teniendo en cuenta lo que es y ha significado en Navarra la Lengua Vasca, dentro de la más fervorosa concepción española...”*. Valero Bermejo gobernadorea sutan jarri omen zen Iruñean

euskararen akademia martxan jarriko zela jakitean, eta mehatxuka ere hasi zitzaion diputatuari. Zubiaur, ordea, ez zen kikildu. Mehatxuei muzin eginenez, Francisco Tirapu eratsundarra kontratatu zuen irakasle, Kontuen Ganberako euskara-eskolak 1950eko urtarrilean hasi zitezten. Handik hogeita hamar urtera, diputatu hura UPNren sortzaileetakoa izan zen. Gaurko erregionalistaren batek ezagutuko al du istorioa?

Oso jende gutxi daki, Nafarroako Diputazioak gerra ondorengo lehenbiziko euskaltegi publikoa sortu zuela, noiz eta 1949an, frankismoaren garairik ilunenean

Hori guztia gogoan joan nintzen

Euskalerria Irratiaren ospakizunera. Kerobia, Berri Txarrak eta Ordorikaren musikaz gozaten ari nintzelarik, irakurri berria burutik ezin kenduz, Jose Maria Satrustegi zenak askotan esandakoa gogoratu nuen: Francoren garaiko nafar diputatuak euskaltzaleagoak ziren gaur egungoak baino. Euskalerria Irratiak azken hogeita bost urteotan pairatu duen etengabeko tratu txarrak ederki laburbiltzen du, nire aburuz, diputatu haiek ere toki onean uzten dituen jokamolde zeken eta lotsagarria. ■



DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Fede-batasuna

EGUN BATEZ, konpainia on batean, barra-barra ari ginen euskara garbian, frontierako benta ezagunaren papera eskuan: bikoteei opariak zegizkieten, gizonari Ricard botila eta emazteari urdeki deliziusa. Irriz genbiltzan, alabaina, gerotik gerora ibili beharrik gabe, 2013ko udaberritik hara frantses estatuan ere bikoteak gizon-gizon eta emazte-emazte ere ziratekeelako, sozialistek hitz emana egiaztatzean.

Irriak sartu zitzaizkigun ordea, taldeko aho zabalenak, gure ezpaldinekoentzat plazaratzen den aldizkariako artikulua irakurri zigunean: protestanteak, katolikoak, musulmanak eta judutarrak ezkontza

homosexualaren aurka izanki, pozten dira gobernuak legearen eztabaidatzea hilabetez atzeratu duelako. Ez da gerlarik orizu! Jainko zeken eta larderiatsu berdina dute denek! Badakigu gaur lege berriari adopzioa eta medikalki lauzkatu ernalkuntza eskubiderik ez datzekiokeela.

Amaizun heteroklasistak ageri dira jada ezkontza unibertsalaren kontra manifestatzen, zeruaz sariztatuko baita gure ez beste dretxoaren mugatzeko mugitzea!

Urrats bat baizik ez balitz hemendik gobernuak gibel egitera? ■





Mikel Otero

◆ FRACKING EZ ARABA
PLATAFORMAKO BOZERAMAILEA

Gobernu berriari begira

GASTEIZEN frackingaren aurkako azken manifestazioaren oihuen oihartzunak itzali gabe daude. Araba eta inguruko biztanleek argi eta ozen erakutsi zuten haustura hidraulikoaren aurkako jarraia. Adin, kolore eta pentsamolde desberdinetako jendearen aho bateko mezu zuzena entzun zen: fracking ez, ez hemen eta ez inon!

Ikuspuntu guztietatik alferrika-ko proiektua dela argi azaldu du Fracking Ez Arabak. Urte osoan buru-belarri lanean aritu gara eta emaitzak ukaezinak dira: Arabako 26 udalerrietan frackingaren aurkako mozioak onartu dira, frackingaren aurkako borroka babesten duten alderdi politiko, sindikatu, luraren defentsan diharduten elkarte, eta beste hainbat talderen kopurua ikusgarria da. Borroka babesten duten pertsonen kopurua milakotan zenbaitu daitezke, horren guztiaren isla ederki baino hobeto ikusi genuen urriaren 6ko manifestazioan.

Gizartearen borondateak orde, politikarien asmoetan eta ekimenetan eragin behar du. Ezin dugu ahaztu frackinga, EAEko Gobernuaren babesean dagoen Hidrocarburos de Euskadi enpresa publikoaren eskutik datorrela Euskal Herrira. Guztiona den diruz ordainduko dituztela lehen-dabiziko txikizio lanak. Hori horrela, aurreko gobernuaren eta datorrenaren borondatea guztiz erabakigarria izango da.

Datorren gobernuak frackingaren aurrean duen erronka ez da nolanahikoa: Energia industria boteretsutik datozen interesen aurrean makurtu eta lurraldea arriskuan ipini ala herritarren kezkarri eta mezuari kasu egin eta proiektu hauek bertan behera utzi.

Orain arte ikusitakoaren arabera, zalantza handiak ditugu datozen hilabetei begira. Politikari guztiek diote ez dutela ingurumena arriskuan jarriko, baina ez dira horrenbeste frackinga ez dela egingo diotenak. Dagoeneko jendeak badaki, frackinga egiten bada, arriskuak ezingo direla ekidin, ezbeharrak gertatuko direla, eta nahiz enpresa zultzailak “praktika onak” egiten saiatu, baliabide fosiletan oinarritutako eredu energetikoak inongo etorkizunik ez duela. Klima aldaketa areagotu eta baliabide berriztagarrien atea itxiko du frackingak.

Honen guztiaren aurrean, gure ustez, datorren Euskal Jaurlaritzak pauso argiak eman beharko ditu. Pauso zuzenak mugarri hauek barneratu beharko lituzkete:

– Frackinga egiten hasteko diru publikoa ukatu.

– EAEko eremuan, onarpenaren zain dauden Lurra, Lore, Saia eta Landarre hidrokarburo ikerketa baimenak atzera bota.

– Jadanik Espainiako Estatu-ko Industria Ministerioak onarturiko dozena luze baimenak atzera botatzeko presioa egin.

– Kantabriako Gobernuak frackinga debekatzeko emandako pausoak jarraitu eta horretarako bere esku dauden baliabide legegile guztiak erabili ekimenak gelditzeko.

– Baliabide berriztagarrien aldeko apustu argia egin.

Bitartean, Fracking Ez Arabak bere esku dituen bide guztiak jorratzen jarraituko du agindu duen bezala, baita gobernu berriaren pausuk aztertzen ere. ■



BERTSO BERRIAK

Euskarari jarriak



XDZ

Julio Soto



Doinua: Haurtxo txikia negarrez dago.

Euskalduna den herri honetan
eredugarri boladaz
Non estatu bat sortu nahi dugun
bizi gaitezen patxadaz
Non bizi garen kanpoko lege
eta ohituren ikaraz
Ehundik hamalau elkarriketa
egiten dira euskaraz.

“Jordi Alba da del Barcelona,
daude logelan eltxoak
Dakizu zein da? Zoaz kanpora?
Egingo duzu bertsoak?
A ke direnak super altuak
jotzen dituzte tetxoak?”
Pentsa horrela hasi direla
hitz egiten gaztetxoak.

“Niri erdaraz ateratzen zait
saihestu ahal baneza...
Jo, baina eske gauzak horrela
egonda ez da erreza.
Baldin bagenu instituzio
eta legeen babesa”...
Ados! Zuk segi justifikatzen
zure kontzientzia eza. ■





JOSU SANTESTEBAN

Angel Erro

♦ IDAZLEA

Errebisionismoa

NI URETATIK noiz aterako zain nago igerileku ondoko tabernan. Bitartean, kafe bat eskatu eta gaurko egunkariak orritzatzen ditut. Manuel Chaves bigarrenenez inbestitu dute Andaluziako presidente; Bosniako gerra gaizkoatzeko arriskuan dago; irteera operazioari buruzko betiko berriak; Bettino Craxi Italiako lehen ministro ohiari zortzi urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri diote lehen instantzian. Baina beste notizia bat nagusitzen da guztien artean. Atzo atentatu bat egon zen Madrilan. Hiru hildako. Bi militar eta ballet bateko atrezzoak deskargatzen ari zen gazte bat. Argazkiak begiratzen ditut. Neure buruari aurpegiaritzen diot langilearen edertasunean arreta ipintzeagatik. Horrek –eta militarra ez izateak– haren heriotza asaldagarriagoa egiten didala ohartzen naiz eta, igeriketan nagoen aldera begiratzen dudan bitartean, aspaldiko partez neure erreazio haur aztertzen dut eta bere testuinguru historikoan jartzeko saiatzen naiz. Oker ez banao, hemendik hilabete gutxira norbaitek kargu hautetsiak ere helburu militarra izateko agindua emango du.

Halako neke erretrospektiboak hartuta, kafe-tegia utzi eta banku bakartu batean eseri naiz. Borgesen ipuina irakurria dut eta, neure modura egin nahi badut ere, gutxieneko girotze bat ezinbestekoa irudituko zait. Azkenik hamasei urteko Angel Erro ere, oraindik bustita eta liburu bat –batere gogoratzen ez dudana– eskuan duela, bankura iritsi da. Beste muturrean jarri da.

Handik tarte batera, zer irakurtzen ari den galdetu diot. Izenburua esan eta isildu denez, nik ere irakurrita daukadala gehitu dut, erdi gezurretan, hasi berrikan solasaldiak kale egin ez dezan. Pertsonaiez eta argumentuaz luzatu bitartean, ezin dut irri-

barre ironiko bat saihestu nire orduko suhertasunaren aurrean. Neurri batean harira datorrelako, azaltzen diot nik egunotan irakurtzen ari naizen eleberria, oraindik idatzi ez dena eta euskal kritikak oso ongi baloratzen ari dena. “*La estoy leyendo en euskera*”, zehaztu diot, honek ere, bere hutsaltasunean, akuilutzat balio balezake. Burutik pasa zait atzoko atentatua hizpidera ekartzeko, jatorrizko bekaturik gabea nintzeneko iritzia –aski heldugabea, seguruenik– aditzeagatik. Baina berehala baztertu dut.

Oso mutil goapo bat pasa da gu bion aurretik. Beti erakarri izan nauen ikaskidea ezagutu dut eta jarraitu diot begiradarekin, baina nire ni nerabeak ez ditu begiak lurretik jaso. Neure buruarengatik pena sentituko dut. Ernatu beharko nuke. “Ezagutzen duzu pasa berri den mutila? Jatorra dirudi. Eta bere koadrilako Imanol ere ez zenuke bistatik galdu behar; ikusiko duzu zergatik”. Gaia lerratu nahi dut, baina bestea deseroso dago. Ez dut atarramendu onik aterako. Beharbada, iragana ez da saihestezinari aurre egiteko tokirik onena. Altxatu da presaz eta etxera behar duela esan dit. Bere gauzak hartuta kalera atera da.

Aldageletako ispilu aurretik pasatzean, nire buruari zeharka begira, bat-batean ohartu naiz; oso aspaldiko putzu beltza askatu da: ni naiz gizon hura! Eta gaur da egun hura! Baina denak nire buru nerabeak eraikitako gezur bat izan behar du! Nik ez diot ezer egin, ez dut ukitu. Argitu beharko nioke eta akaso horrela nire buruari etorkizun baketsuago bat eskaini ere bai.

Lasterka egin dut ea harrapatzen dudana etxera heldu baino lehen. Zerratoki ondoran topatu dut. Nire paretan arnasarik gabe iritsi eta eskua sorbaldan

jarri diot. Orduan burua itzuli dut eta izurikara neurrigabea irakurri dut nire aurpegian. ■



Antton Olariaga



abenduak
3

2012

euskararen

eguna



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

«Poesiak narrazioaren bidea argitzen lagundu dit»

Nobela berria dakar Kirmen Uribek udazken-negu honetan. *Mussche* (Susa, 2012) du izenburu eta, azalean, Bigarren Mundu Gerran Belgikan, Flandesen, erresistentziarekin bat eginik jardun zuen Robert Musscheren historia da. “Heroi baten historia”, azalean. Alabaina, mamian, bizitzaz, heriotzaz, munduaz eta, oro har –eta, batik bat–, adiskidantzaz ari da gure idazlea.

| MIEL A. ELUSTONDO |
Argazkiak: Dani Blanco

Zubi Zaharrean egiteko asmoa genuen elkarrizketa Dani Blanco argazkilariak eta biok. Zuk, puska denak bildu arazi dizkiguzu, Saturrarango hondartzara ekarri gaituzu. Ba omen duzu horretarako arrazoirik. Ez gaituzu alferretan ekarri...

Ez. Hiru arrazoi ere badituz zuek –eta ARGIA-ren irakurleak–, Saturraranera etor zaitezten, Mutrikutik hona bitarte dauden zazpi hondartzak –zazpi esan ohi dugu, baina hainbat dira bertan hondartzak–, leku eder hau zuei erakusteko ez beste. Lehenik, gure aita zenaren itsasontzia hemendixe igarotzen zen portura sartzera zihoanetan. Txikitari, jolasean ibiltzen ginen hondartza honetan, eta ni hemen jolasean eta norberaren aita barkuan bazetorrela ikustean, halako sentipen arraro batek hartzen ninduen barruan, hutsune bat nuen... Bigarren arrazoa da hemen, Saturraranen, emakume kartzela izan zela garai batean, eta

hainbat emakume, eta ume, hil zirela bertan. Nobela berriak, *Mussche*-k, badu aski lotura oroimenarekin, badu lotura historiarekin eta, beraz, “hauxe da lekua”. Hirugarrenik, Aitzol Aramaio adiskidearen errautsak ere hemen zabaldu genituen. Hauxe da lekua!

Aitzol Aramaio aipatu duzularik, bera ageri da liburuaren amaieran, eta diozu, dio idazleak: “Elkarrekin egon ginen azken aldietako batean hauxe esan zidan Aitzolek: ‘Heroi baten istorioa kontatu behar duk’”. Robert Mussche da heroi hori...

Bai, bera da heroi hori... Dena dela, *Mussche* idatzirik, gauza askotara itzuli nahi izan dut. Batetik, itzuli, neure jendearengana. Bestetik, neure baitara, neure burua ikusten saiatu naiz nobela hau idazten ari nintzen bitartean... Irakurlearentzat gozamen literario izan dadin nahiko nuke liburu hau, eta, aldi berean, pentsa dezan Musschek sentitu zuena, garai hartan irakurri zuena. Nahiko nuke irakurleak gerra hartan gertatu zenaz gogoeta egitea, errealitate hartaz jabetzea, bizi garen garai zail honetan ere. Jendearengana hurreratu nahiko nuke... Zail zait adieraztea.

“Jendearengana hurreratu” diozu. Beti ikusi izan zaitugu jendearekiko, jendearengandik hur...

Kinka larrian bizi den jendearengana hurreratu nahi izan dut. Askok lana galdu du, gorriak bizi ditu. Horregatik aukeratu dut pertsona hori [Robert Mussche], konprometitua, engaiatua delako, gizartea hobetu nahi duelako, jendeari laguntzeko prest egon zela-

Gerrako haurrak I

“Gerrako haurren gaia inguruan ibili zait beti, txikitandik. Amak kontatuta dakit orduan gertatutakoa. Ondarroan bertan, Mikel Etxaburu lagunaren izeba bera ere Belgikan da, gerrako haur joanda. Gaia ez zitzaidan arrotza, beraz. Behin, Bogotan nintzela, Paulino izeneko gerrako haur batek esan zidan: ‘Gerrako haurrei buruz idatzi behar duzu nobela’. Niri kezka ematen zidan, beldurra, gaiaz idaztea, konplikatu iruditzen zitzaidan, arriskutsua literaturan. Carmen Mussche ezagutu nuelarik aienatu zitzaizkidan zalantza, kezka eta beldur guztiak. Argi ikusi nuen: ‘Hauxe da idatzi behar dudana, hauxe da kontatu nahi dudana *Bilbao-New York-Bilbao* haren ostean’.




ko. Horixe nahi nuen. Fikzioa idaztean bada arriskua mundutik urruntzeko, sasoi batean izan zinen pertsonarengandik urruntzeko. Horregatik nahi izan dut neure barrura itzuli. Carmen Musschek egin zuen moduan egin dut, barrura begira jarri eta bila hasi, iragana den kutxa handi horretan bila. Eta, benetan, uste dut iragan horretan neure burua aurkitu dudala. Nobela honek min batzuk gaintitzen lagundu dit, zauri batzuk ixten, eta berriz idazten hasteko balio izan dit, garai batean ez nuen-eta idazten. Nik esan beharko banu, esango nuke Musschek berak lagundu didala liburua idazten.

Zein duzu Mussche? Robert Mussche dugu, batetik, Bigarren Mundu Gerran Holandan erresistentziarekin konprometitu zen hura.

«Konfiantza handia daukat egiten ari naizen bidean».

Bestetik, haren alaba dugu, Carmen, aitaren oroimena berreskuratu zuena...

Biak dira izenburuko Mussche, aita, eta alaba. Eta Vic da Mussche, eta Roberten lagun Herman. Liburuaren hasieran bertan esaten dut nork bere burua ez ezik, besteek ere egin egiten gaituztela, bizitzan batean eta bestean aurkitzen ditugun pertsonak egin egiten gaituztela. Esaterako, Robert bera bizirik dago haren emazte Vicek hainbat eta hainbat urtean egin zuen oroimen lanarengatik, batetik, eta bestetik, berriz, Carmenek, alabak, oroimen hura berreskuratzeko egin zuen ahaleginarengatik. Carmenek, finean, kutxetan sartuta zeuden liburu, eskutitz eta argazkiak berreskuratu zituen eta, aita hil ondoan ere, Robert "egin" zuen. Gauza ederragorik! Mussche da Robert, da Carmen, naiz ni neu.



Euskaraz blai Hernanin





“Mussche naiz neu”...

Bai. Ez nuke esango Robert Mussche besterik naizela, edo Herman Thiery baizik... Bietatik naiz. Adiskidetasunari buruz idazteko balio izan dit lan honek, maitasunaz, aitatasunaz, aitatasun ez biologikoaz, heriotzaz, literaturaz, literaturaren inguruan sortzen diren haserre eta inbidiari buruz... Aukera handiak izan ditut. Batez ere Robert, Herman eta Vicen historiak kontatzen ari naiz liburuan, baina azken urteotan neuri gertatu zaidana ari naiz kontatzen *Mussche*-n. Nobelako pertsonaien atzean ezkatututa daude Aitzol, Nerea eta beste. Idazle baten biografian oinarritu naiz, fikzioa eginez eta neure buruaz jarduteko. Oso baliabide emankorra begitnantzen zait, benetan.

Arestian esan duzu alabak berreskuratu zuela aitaren irudia, haren bizia, zu bitartekari zaituztela...

Ez da gezurra. Carmenek esan zidan zikloa, honenbestez, itxi egin dela. Robert Musschek Euskal Herriko ume bat, gerrako haurra, hartu zuen Belgikan: Karmentxu. Etxean hartu zuten. Orain, aldiz, Euskal Herriko idazle batek Robert Mussche hartu du bere literaturan, bere bizitzan, bere bihotzean txertatzeko. “Zikloa itxi egin da!”, zioetan Carmen Musschek, euskal idazle batek kontatu behar zuela historia.

Bilbao-New York-Bilbao ondoren dator *Mussche*. Hark kondizionaturik ote dator hau, haren itzalpean, menturaz?

Hori nire bizitzatik eta lanetik kanpo dago, errespetu osoz esanda. Ni neure bidea egiten ari naiz, gaztetatik jakin dut zer etorriko zen, idaztea. Liburuak bata bestearen ondorengotik etorri dira, presarik gabe, neure bidean. Konfiantza handia daukat egiten ari naizen bidean, liburuak egin lezakeen zaratak ukitzen nau, baina ez larregi, lasai idazten ohi dut, jakinik bide luzea egin behar dudala, jaki-

Gerrako haurrak II

(Mussche, pasarteak)

“—Zergatik kontatu nahi duzu Robert Musscheren historia? —artez galdetu zidan Marcek, afaldu ostean egongelan biok bakarrik geratu ginenean—. Badakit Medellingo festibalean Julio Flor kazetariak Karmentxu Cundini buruz hitz egin zizula, eta baita Roberti buruz ere. (...) Baina, kontatu egidazu, zein da zure nobela idazteko sakoneko arrazoia?”

Ezustean harrapatu ninduen Marcen galderak, bidaiez edo politikaz nahiko azaletik eta umorez berbetan jardun ondoren etorri baitzen.

—Hilabeteak neramatzan ezer idatzi gabe —esan nion—, eta hurrengo liburua nolakoa izango zen ere ez nekien. Nire lagun min baten heriotzak erabat galduta utzi ninduen. Hura galdu eta alabatxo bat etxean, dena aldi berean. Noraezean sentitzen nintzen, alde batetik pozik, bestetik triste. Ezagutzen nituen gerrako umeen kontuak, betidanik piztu zidaten arreta euren bizipe- nek, baina oso zaila egiten zitzaidan behar bezala kontatzea”.

«Sakon-sakonetik naiz euskalduna, nire hizkuntza, nire kultura, nire jatorria zaindu nahi ditut»

nik hobetuz joango naizela. Baliteke inozo izatea konfiantza hori, baina horretan nago, konfiantza handia daukat neure ibilbidean. Harrerari dagokionez, *Bilbao-New York*...-ek harrera handia izan zuen, dela irakurleen aldetik, sarien aldetik, itzulpenen aldetik... ezin zaio hari gehiago eskatu. Oso liburu intimoa zen, pertsonala. Lehenengo nobela nuen, on eta gaitz guztiekin. Ezin diot gehiago eskatu *Bilbao-New York*...-i. Zenbaiti ez zitzaion gustatu. Ondo da. Izan ziren zenbait erreazio lekuz kanpokoak. Ulertzen ditut horiek ere, edo ulertzen saiatzen naiz, testuinguruan jartzen, nahiz eta ados ez egon. Asko ikasi dut handik hona, *Bilbao-New York*...-ek izan zuen harreratik, onetik nahiz txarretik, bietatik.

Lehen nobelak mundua ibiltzen jarri zintuen, idazteko tailerretik aparte zinen beti edo gehienean, baina ibili behar horrek ekarri zuen hil



EDONON...

Etxean, koadrilan, kirolean, lantokian, udaletxean...

EDONOGAZ...

Lagunagaz, auzokoagaz, ezezagunagaz, euskaldun barriagaz, itxura desberdina daukanagaz...

EDOZERTARAKO...

Maitasunezko berbak esateko, protestatzeko, eskatzeko, emateko, bizitzeko...



biko egonaldia aurten Kaliforniako Sausaliton. Hantxe ondu duzu oraingo lana.

Emankorra izan zen Sausalitokoa, bai horixe. Hantxe egin nuen *Mussche*-ren lehenengo idatzaldia, hantxe hasi eta bukatu nuen liburua, halako sukar batek hartuta! Kontatzeko gogo nuen! Harrezkerro, hona itzuli eta berridatzi besterik ez nuen egin! Uste dut nobela bat idazketa askoren ondorio dela, idazketa eta berridazketa nahitaezko direla. Sausaliton nintzela, berriz, bakarrik nengola, eta kanpoan, zauriak sendatzen asmatu nuen. Bakarrik eta kanpoan. Egia esan, gero eta gehiago gustatzen



zait neure buruarekin bakarrik egotea. Ez dakit arazoa den ere! Kar, kar, kar... Sausaliton, han zen idazle batek esan zidan: "Idatzi lehenengo pertsonan, idatzi labur, idatzi azkar". Kasu egin nion. Kalifornian, izan ere, neure gogoko idazle eta literatur munduarekin egin nuen topo, AEBetako XX. mendeko literaturarekin bat egin nuen, baita gaur egun idazten denarekin ere. Hor da, esaterako, Dave Eggers idazlea, kaliforniarra, eta haren lana, *What is What?* (Zer da zer?), adibidez. Afrikatik joandako immigrante baten bizitza kontatzen du, lehenengo pertsonan. Lehenengo pertsonan. Biografian oinarritzen da, literatura egiteko. Joera narratibo horrek eragina izan du nigan, eta konfiantza ere eman dit Bar Puertotik hona egiten ari naizen bidean –biografia, fikzioa, errealitatea...–; Kalifornian ere oso gauza estimatua dela ikusi nuen-eta.

Mussche-n, itzulpen lanetan ari da Robert aldi batean. Dio narratzaileak Roberten gainean: "Gustuko du erbesteko hizkuntza horietan esaten dena bere hizkuntzan berresatea, inork zanpatu gabeko lurralde batean sartzea bezalako da berarentzat. Itzulpengintzak paisaia ezezagunetara zabaltzen dizkio leihoak edo, gauza bera dena, egundo idatzi gabeko esaldietara". Zer diozu zeure lanen itzulpenez?

Utzidazu esaten, lehenengo, Robertek nederlanderaz idazten zuela, oso egoera txarrean egon zen hizkuntza. Ispilu bat izan dut hori,

euskal idazle batek Robertek antzeko senti lezakeelako. Hark, ikasteko, itzuli egiten zuen, literatura unibertsaletik. Etxean egina dut saiakera, ikasteko. Itzulpenez, berriz, esango dizut oso zaila dela inoren lanak beste hizkuntza batera itzultzea, eta lortzen denean, pozik egon behar dugula. Benetan da zaila, benetan da aberasgarria euskarazko lanak beste hizkuntza batera itzultzea. Uste dut *Mussche* itzuliko dela, eta kanpoko irakurleak bere burua ikusiko duela nobelan. Baita *Bilbao-New York*...-en ere. Japondik etorri berria naiz, eta han oso gertuko dute nobela hori: arrantza-leen bizimodua, gerrari buruzko gogoeta. Japonen ez da hitz egiten Bigarren Mundu Gerrari buruz. Nami Kaneko itzultzaileak esan zidan beraren amonak sekula ez duela hitz egin gerraz, ezer kontatu gabe hilko dela! Itzulpengintza ezinbestekoa da, eta nik neuk euskarara itzultitako –oso ondo itzultitako–, hainbat liburu erabili ditut *Mussche* idazteko.

Zer diozu gaztelaniazko irakurleaz? Harengana hurbiltzen saiatu zara, hainbat keinu eginak dituzu...

Aspaldi gabiltza Euskal Herrian bizi den euskaldun horrengana iritsi nahian, hurreratzten. Gabriel Aresti, Bernardo Atxaga, Anjel Lertxundi... saiatu dira. Horrek, dena den, interferentziak sortzen ditu. Aurreko lanaren karietara Campos Eliseos antzokia egin genuen aurkezpena, Seix Barral etxearen eskutik. Jende asko bildu zen bertara, erdal-

duna. Gaztelaniazko egunkarietan ere hainbat agerpen egin ditut, jende horrengana hurreratu nahian, euskal literatura ikusgarri egin nahian. Horrek, ordea, atzealdea babesik gabe uztera eraman nau, nire betiko jendea nahastuta ikusi dut, eta ez dut horrelakorik nahi, nire betiko jendea zaindu nahi dut. Sakon-sakonetik naiz euskalduna, horixe naiz batez ere, horixe zaindu nahi dut, nire hizkuntza, nire kultura, nire jatorria...

Durango Azoka batean, Edorta Jimenezekin berrikeran Palentziako Etxean eta *Bilbao-New York*...-en zarataren erdian. Batek eta beste teko kritikak, blogetan esan zirenak liburuaz, eta niri buruz! Eta horretan, Durango hartan, Edortak esan zidan: “Euskal literaturan nahi zaitugu”. Isilik geratu nintzen. Orain, eskerrak ematen dizkiot Edortari.

“Euskal literaturan nahi zaitugu”. Bogotan, Ganten, Bartzelonan, Japonen... ibil zintezke, euskarazko literaturan zaitugulako.

Horixe. Baten batek pentsatuko du literatur industria handiaren eraginez nabilela hemen eta munduan, hizkuntza batean eta bestean nire lanak itzulita, baina ez da horrelakorik. Agentzia-lan gutxi, diru-laguntzak bakan... Horren atzean ez dago literatura maite duen jende askoren gogo a besterik. Dela *Bitartean heldu eskutik*, dela *Bilbao-New York*... horrela itzuli izan dira. Horrek ikaragarri estutu du literaturarekiko dudak lotura. Gainerakoan, ez dut uste euskal literaturan aberastu den idazlerik dagoenik. Ez dut uste. Esker txarrekoak ere izan garela esango nuke.

Esker txarrekoak, euskal idazleekin, esan nahi duzu?

Bai. Gogoan dut Xabier Leteri Sautrelan egin genion elkarrizketa. [Hasier] Etxeberria zen galdezka. “Damu bat?”, Etxeberriak, eta

«Baten batek pentsatuko du literatur industria handiaren eraginez nabilela hemen eta munduan, hizkuntza batean eta bestean nire lanak itzulita, baina ez da horrelakorik»

Leteren erantzuna: “Gabriel Aresti oso gaizki tratatu genuen”. Uste dut horretan segitzen dugula, euskal idazleak gaizki tratatzen. Aresti, Mirande, Atxaga... gaizki tratatu ditugu, maltzur jokatu dugu askotan eta askotan.

Poesiarekin loratu zinen euskal literaturara, narrazioaren bidean zabilta aspaldi. Eta Kirmen Uriberen poesia?

Poemak idazten ditut, tarteka. Poesiaren denbora beste bat da, hala ere. Kristalaren denbora da. Poliki sortzen dira poema onak. Errespetu handia diot poesiari, horregatik ari naiz mantso idazten. Bitartean, poesiak narrazioaren bidea argitzen lagundu dit, zer kontatu, nola kontatu, zer utzi irakurleari esan gabe —berak irudika dezan—, isiluneak antolatzen, analogiak sortzen... Esango nuke nobela onak poesiaren distira behar duela. Poesia eta nobela ez dira elkar joka ari. Nobelagile onak poeta ona ere badu bere barruan.

Amaitzera gatoz, eta esan dezadan, orain dozena bat urteko zure liburu-asmo bat gogoan: *Mussche* da *Dos amigos*? Bukaera da? Kitatu duzu zorra?

Bai, *Mussche* hau harako *Dos amigos* hura da. Adiskidetasuna. Aitzol [Aramaio], oso presente... Zauria ixten lagundu dit. Gazte nintzanean ez nuen sinesten literatura terapeutikoa izan zitekeenik, baina orain jakin dut sendabide ere izan litekeela. Nobela honek lan hori egin du nigan, behintzat. Hor da Aitzolen galera, eta hor da nire sentipen hura: paradisuatik bota izan banindute bezala sentitu nintzen garai batean, euskal literaturaren barruan sortu ziren interferentziak eta beste. Bota nindutela sentitu nuen. *Mussche*-k bi zauriok sendatzen, arintzen, ulertzen lagundu dit... Ulertzen. ■



Haur eta Gazte literatura

Amattoaren uzta
Mayi Ariztia

Ilustrazioak: Maite Gurrutxaga.
Egokitzaila: Patxi Zubizarreta.
Alberdania, Erein, Igela, 2012.



Iragana gerorako

1934AN ARGITARATU ZITUEN Mayi Ariztia saratarak herri ipuinak biltzen dituen liburu hau. Aitzin-solasean ageri zen bezala, Josepe Amorena izeneko “lauetan hogeita bi urteko xahar maite” batengandik jaso zituen ipuin gehienak, bederatzi zehazki, eta “harritzekoa da zer memoria izaten duten bate-re irakurtzen eta izkiriartzen ez dakiten horiek: liburuetan deusik ezin ikasi, eta beti oroitzen beren aintzinekoengandik aditu dituztenez!”.

Mayi Ariztiak 15 ipuin batu zituen liburuan eta orain, Patxi Zubizarretak egokiturik, berriro goza ditzake irakurleak antzinako istorioak irakurriz, gure arbasoen kontuak ezagutuz. Are gehiago, liburu honetan Maite Gurrutxagaren irudi ederrek balio erantsia ematen diote berez biziki estimatu eta maite dugun lanari.

Liburuko istorioetan oso estilo eta narrazio ezberdinak aurki ditzake irakurleak, badira arima eta deabruen istorioak (lehenengo ipuinean bertan, *Mutil baten istorioa*, agertuko zaigu Ama Birjina protagonistari laguntzen), herri ipuinen kutsukoak, Axularren arokoak... batzuk ezagunak izango zaizkigu, beste batzuk, berriz, harrigarriak.

Zubizarretak, liburuari eginiko hitzaurrean, honako hau dio: “Egokitze hau sortzailea den bezala suntsitzailea ere bada. Hala geratu da orain (...) ipuinotako zenbait erreferentzia eta aipamen (...)”

zaharkiturik geratu dira, eta desagertu eta horiek beste molde batera ematen ahalegindu naiz, berregokitzen edo, kasu bakar batean, ezabatu ere egin dut”. Hain zuzen, erlijio pisu horren arintzea edo, nabari daiteke *Mutil gaixo baten eta neskatxa baten istorioa* ipuinean, jatorrizkoan, *Mutil gaixo baten eta Birjina Maria neskatxaren istorioa* baitzen.

Edonola ere, aldaketek testua gaurkotu eta irakurketa erraztu egin dute, gaurko irakurleari hurbilduz, eta horrela, antzinako ipuin hauek gureganatzeko aukera paregabea eskainiz. *Amattoaren uzta* honetan, besteak beste, geroago Barandiaranek jasotako istorioen antzekoak aurki ditzakegu (*Arotzaren istorioa* edo *Arttoaren istorioa*), edo Azkueren *Ondo eginak zer merezi daben* ipuinarena, oraingoan, baina arabiar kutsua duelarik.

Sarritan aipatu izan dugu euskal tradizioaren aberastasuna, ahozkotasanunak izan duen garrantzia. Horren adibide bat dugu tradiziozko testu eder hauek biltzen dituen liburu hau, baita aukera ederra lehena eta geroa, tradizioa eta modernitatea, gure arbasoak eta haurrak elkartzeko ere. Eta, hau guzti hau, ipuin batean amaieran ageri den bezala, “Eta hala ez bada, hala gerta dadila”. ■

Xabier Etxaniz Erle



txalaparta
www.txalaparta.com



...Irabazi arte
Iheskide
Mauka, 2012.

Topikoa da benetan errebeldea

KANPAZAR mendatearen bi aldeetan, Leintz bailaran eta Durangaldean, gazteriak aspaldidanik izan du punk-Oi! musikarako zaletasun berezia. Testuinguru honetan ezagutu eta kokatu nuen nik Elorrioko talde hau, artean Iheskide izena zuenean. Hastapenetan eten handiko ibilbidea izan zuen beste hainbat taldetan aritutako lagunaren proiektu honek, eta sendotasuna hartzen hasi zenean taldeko baxu jotzailea espetxeratu egin zuten. Eraso horren aurrean baxuaren lekukoa eta mikrofonoa beste lagun askorekin altxatuz, Iheskide izena hartu eta diskoa grabatu zuten. Izugarritzko harrera izan zuen.

Ordurako argi geratu zen punk-rock errebeldea egiteko sortutako taldeak aipatutako etiketaren estalpetik askatu, Gipuzkoa eta Bizkaia arteko muga psikologikoa erraztasunez gainditu eta gogor ekingo ziola etorriko zen guztiari, etsaiari gogor egiteko asmoz. Hala, Tronpi askatu eta ...*Irabazi arte* diskoa prestatzeari ekin zioten.

Iheskideri izena eman zion lanari jarraipena –jarreraz eta estiloz– emanez, oraingoan ere erakutsi dute taldeak aukeratutako punk-rock errebelde deitura estilistikoki oso irekia dela eta Oi! musikaren lagun arteko taberna-koroetatik harago doala: kantuetako asko oso gitarrero eta rock-and-rolleroak dira, Eskandinabiako taldeak ekartzen dituzte gogora; Ingalaterrako 77ko punkaren irmotasun

eta berezko *letxe-txarra* ere barneratzen jakin dute, NCC donostiar talde beteranoak egin ohi duen bezala; eta urrunago ausartuz, hard-rocka eta Alemaniako punkaren berezko melodia malenkonikoa uztartzen ere jakin dute. Ez da makala!

Gainera, Euskal Herriko punk-rock eta rock-and-roll eszenan mugitzen diren talde gutxik bezala, ez dute inoiz pentsatzen dutena azalertzeko bidezidorrik hartu eta mezu zuzenenak ematea aukeratu dute amildegian behera balazta gabe jaurtita aurrean jartzen zaienena kontra. Topikoen benetako garrantzia –orain ez bada, noiz?– errebindikatzeke idatzitako hitz gezidunek iraultza, espetxea, lobby jeltzalea, gose greba, sakabanaketa eta maitasuna dituzte gai nagusi, barru-barrukoari jarraituta.

Aipatutako mugak apurtu izanaz gain –eta aurrerago etorriko direnak– taldeak lortu du gazte –eta ez hain gazte– ugari jarraitzaile izatea; eta horrekin batera, taldearen mezua zabalduaz bat, datozen belaunaldiei ondo jorratutako musika estilo gogor baina esanguratsuak hurbiltzea. Talde kontsekuentea da –batzuek panfletario deituko dute–, diskoak zuzenekoetan saltzen dituzte eta uko egiten diote beraien lana dendetan zabaltzeari.

Iker Barandiaran



GORROTXATEGI



Egile Turroiak



Gorrortxategi Maisuaren Sorkuntza

Gorrortxategi

www.gorrortxategi.com

Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Pierre Hazan Harremanetarako Nazioarteko Taldeko kideak esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Erraza


		2	8	4	5	3	7	6
				1		5	9	
7				3	6		2	
			6	9		2		5
5			1		3			4
6	1		5	2				
	4		3	8				7
	9	5		2				
1	7	3	5	6	4	9		

Zaila

	8	5		3				
	4			7	2		9	3
7	3							
		4		7			1	
3			2	4			6	
1			9			2		
						3		9
5	7		3	2			6	
			6			7	8	

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



- 1.-Itsas ugaztuna.
- 2.-Uste.
- 3.-Luzaro.
- 4.-Indarkeriaz ekin.
- 5.-Etxe multzoa.

Kike Amonarrizen umorea

Diputatua Britainian



Frantziako presidentetzarako azken hauteskundeetan, UMPko hautagai bat honela mintzatu omen zen Britainiako herrixka batean:

– Ni frantses jaioa naiz! Nire gurasoak frantsesak ziren eta hezkuntza frantsesa eskaini zidaten! Nire izaera eta nire nortasuna frantziar autore eta pertsonalitate handien gerizpean osatu ditut!

Frantziako enpresa batentzat egin dut lan nire bizitza guztian! Frantziar egin ditut nire opor guztiak. Frantziar jaio nintzen, frantziar gisa bizi naiz eta frantziar hilko naiz!

Eta entzule batek:
– Eta zure bizitza guztian ez duzu inoiz inolako anbiziorik izan?

Soluzioak

Erraza

9	1	2	3	4	5	6	7	8
3	6	4	2	1	7	5	9	8
7	5	8	9	3	6	4	2	1
4	3	7	5	9	8	2	1	6
5	2	9	1	7	3	8	6	4
6	8	1	4	5	2	7	3	9
2	4	6	7	8	9	1	5	7
8	9	5	7	2	1	6	4	3
1	7	3	5	6	4	9	8	2

Zaila

9	8	3	1	6	5	4	7	2
6	4	1	8	7	2	5	9	3
7	2	3	4	5	9	6	1	8
2	6	7	5	8	7	9	3	1
3	9	7	2	1	4	8	5	6
1	5	8	9	3	6	2	4	7
8	1	6	7	4	5	3	2	9
5	7	9	3	2	8	1	6	4
4	3	2	6	9	1	7	8	5

Puzzlea:
“Bakoitzak ulertarazi behar die bere jarraitzaileei mahiteria handia behariko dela, pazientzia izugarria, eta oztupoak gainditzeko egoskorteria”.

5x5:
1. Balca. 2. Aburu. 3. Luzaz. 4. Erraso. 5. Auzoa.

#guk ere euskaraz

Abenduaren 3an ere Euskararen Eguna

guk ere euskaraz

guk ere euskaraz

guk ere euskaraz

guk ere euskaraz

guk ere euskaraz

euskararen
Ginkana.net



Informazio gehiago: www.gukereuskaraz.net



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Euskara Zerbitzua



Gipuzkoako
Foru Aldundia



SORTUKO DIRA BESTEAK

ELGETA
ESPALOIA KAFE ANTZOKIA
AZAROAK 25
19:30etan

Eñaut Elorrieta
Mikel Urdangarin
Alex Sardui (Gatibu)
Pier Paul Berzaitz
Arantxa Irazusta
Petti



Antolatzailerak:



ELGETA UDALA



Laguntzaileak:



argia



antza



ALAI KULTURARI
PROMOTZA



GIB



berria



hitza



amaika

Sarrera: aurretik 15€
egunean 18€
Salmenta: leihatila eta
www.kutxasarrerak.net



Kaskasoilaren lilurabidea

SASOIA HALAKOA eta hau da hau fruituaren emana! Makatza edo udarea (*Pyrus* sp.) antigoalekoa izango da, baina aspaldi hartako fruitu gehiago ere bada gure mendi eta erriberetan.

Mendiko angulak ere deitzen dituzten zizahoriak biltzeko garai oneneko gurbitza da horietako bat. Hurriz makila mozten den azaroko ilgorako gurbitza bezalako fruitu gutxi. Fruitua heltzen duen eran, batera hurrengo urteko fruitu bilakatuko diren loreak irekita ditu. Gurbitzaren sasoi betea hauxe da, azaroko ilgora; itsasoaren kresala usaintzen duten gure inguruko basoetan behinik behin, bai. Gurbitzaren gurbea pinporta esferikoa da, hasieran hori gero gorri eta urdintzean beltza. Kolorearen gorria belzten zaionean dago gozo. Pinportak ez du azal leun bilkorrik, ile mami-tuz osatua dago. Hori dela eta, ile tankerako horien artean hezetasuna erraz sartzen da, fruituaren azukreak alkoholera hartzituz. Ez du alferrik gurbe honek mozkorgarri ospea. Mozkorra eta buruko mina eragiten dituela diote, irudipena suspertu eta lilurabidean barrena eramango zaituen koxkor haluzinogenoa dela esan beharrean. Bere izen zientifikoa ederki omen dio, *Arbutus unedo*, banaka bakan jan beharreko fruitua ematen duen zuhaiz-



JAKOBA ERREKONDO

Baliarraingo erretoretxea.

txoa. Banaka janez gero asko jateke, eta horiekin ardo eta uxualak egiten dira. Nik, lasai jateko; behingoz lilurabidea ezagutzeaz gain, osasunean mesede asarrea baitakarkizu. Bere osagaiek on ugari sortzen dute, baina batez ere hiru aipagarri: odoleko azukre eta kolesterol mailak jaitea eta ilearen erortzeari aurre egitea. Ileari euste horretako lanak eragingo ote du egozten dioten buruko min hori?


Joan den igandean Aralar mendiari so egiteko begiratoki gustukoenetako batean izan nintzen, Baliarrainen. Mendi kare-

tsuen altzoan dela ezin uka, herripeko meategietatik ateratako troska dotorez eginak baitaude eliza eta aldameneko ostatu etxearen horma dotoreak. Bai eta baserri etxe askotakoak ere, agidanean. Herrigunean bertan dagoen erretoretzeko hormaren kontra bi zuhaitz daude, zeruarekin lotura argia duen altzifrea, baina sasikoa, sasi-altzifrea (*Cbamaecyparis lawsoniana*) eta gurbitza. Kaskasoila ote zen erretorea? Ala, gu bestean lilurabide beretik ibiltzen al dira apaizak ere? ■



Indarkeria sexistaren aurka lanean jarraituko dugu; emakume eta gizonen arteko **berdintasuna oinarri** izango dituen **eredu sozial baten eraikuntzan**.

Eraso sexistarik ez!



Polonioak hil al zuen Yasser Arafat?



URTETAN PALESTINAKO buruzagia izan zen Yasser Arafat 2004an hil zen. Azken urteotan handituz joan da haren heriotza eragindakoa izan zelako zurrumurrua, eta horren ondorioz ikerketa berezia jarri da abian. Azaroaren 13an Arafaten gorpuzkinak atera zituzten hilobitik, eta azaroaren 26tik aurrera aztertuko dituzte.

Heriotza nolakoa izan zen ikusita gero eta indar handiagoa hartzen ari da lider palestinarra polonioz kutsatua izan zela dioen teoria; baina, zortzi urte eta gero, posible izango al da polonio arrastorik lortzea?

Polonioa uranio mineraletik ateratzen da. Marie Curiek isolatu zuen lehen aldiz, eta bera izan zen, hain zuzen, polonioz kutsaturik hil zen lehen pertsona ezaguna. Polonioa 10.000 aldiz erradioaktiboagoa da beste edozein substantzia baino, eta nahikoa dira mikrogramo gutxi batzuk heriotza eragiteko. Gibelari, urdailari, giltzurrunei eta hezur-muinari erasotzen die, besteak beste. Zortzi urte igaro ondoren hezur-muina da erabat desegin gabe iraun dezakeen gorpuzki bakarra.

Ikerketak bizpahiru hilabete iraungo duela uste da. Polonioa atzemanaz gero, zigarroak erretzetik ote datorkion edo kanpoetik eragindakoa izan den zehaztu behar da, ez baita ahaztu behar tabako erretzaileek polonioa dutela beren gorpuzketan. ■



Planetentzat izenak proposatu dolar baten truke

UWINGU elkarte estatubatuar bat da, astronomia zaleak biltzen dituena, eta aurkitzen diren planetei izena ezartzeko eskubide aitortua du. OGLE-2005-BLG-390Lb, esate baterako. Antza, sozietateak dirua behar du bere proiektuak aurrera eramateko, eta gonbitea egin digu mundu osoko herritarroi, planetentzat izenak proposa ditzagun. Proposamen bakoitzeko dolar baten 99 zentimo ordaindu behar dira.

Zeurea proposatu nahi baduzu, ttiki.com/44367 webgunean egin dezakezu. ■



Zelula kantzerigenoek zelula osasuntsuen laguntza dute

Bartzelonako IRB institutuko ikerlarien arabera, koloneko minbiziaren kasuan kantzerigenoak ez diren zelulek sortzen dute metastasia. Antza denez, zelula osasuntsuek minbizi-zelulak inguratu eta ezkututzen dituzte.

ttiki.com/44368
(Gaztelaniaz)

Dinosaurio ezezaguna aurkitu dute Hegoafrikan

Orain 200 milioi urte bizi izan zen eta belarjalea zen. Ez zen ailegatzeko metro erdiko luzerara, eta pisua katu batena baino txikiagoa zuen. Ezaugarri harri-garriena, ordea, ahoko bi letagin zorrotzak dira, logikoagoak bailirateke haragijale batengan belarjale batengan baino.

ttiki.com/44369
(Gaztelaniaz)

Muskerren birsortutako isatsak zaharren desberdinak dira

Arizonako (AEB) bi unibertsitatetako ikerlari talde batek muskerren isatsak aztertu ditu. Jakina da muskerrek isatsa galduz gero birsortzeko aukera dutela, baina aipatutako ikerlariek behatu dutenez, sortutako isats berriak ez dauka zerikusirik zaharrarekin.

ttiki.com/44370
(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera


web garapenak


multimedia


aholkularitza


edukiak


iametza
 interaktiboa
www.iametza.com
 T.943 37 67 16


VITORIA
GASTEIZ



ELEBIDUNA
BAZARA

ZURE BIZITZA
HOBETUKO DUZU,
BAITA BESTEONA ERE

ELEBIDUNA NAIZ
ABERATSA
NAIZ



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA BAZA
Euzko Foruaren Kulturabazaria
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Esbastika, udazken koloretan

BREVĒ HISTORIA DE HITLER



Ezkerrean, Adolf Hitler, 1938an, Nurembergen egindako desfile batean. Goian, Zernikoweko esbastika 2000. urteko azaroan. Esbastika erraldoia *Führer*-ari urte hartan egindako oparia izan zela dio bertsio zabalduenak.

ZERNIKOW (ALEMANIA), 1992ko udazkena. Alemaniako gobernuak hiru urte lehenago batutako herrialdearen lurralde osoko airetiko argazkiak ateratzeko agindu zion aireko ejertzitoari. Eta argazkiak aztertzeaz arduratu ziren unibertsitateko ikasleek aurkikuntza bitxia egin zuten: Brandenburg eskualdeko Zernikow udalerriko pinudi batean, laritzeko esbastika erraldoia ikus zitekeen. Ia 60 metro koadroko azalera hartzen zuten 100 laritzek osatzen zuten esbastika, eta udazkeneko zenbait astetan soilik ikus zitekeen, orduan baino ez baitziren bereizten laritz horixkak inguruko pinuetatik.

Esbastika itzelaren jatorria ez dago garbi. Badirudi zuhaitzak Schmidt izeneko basozain batek landatu zituela, baina noren aginduz? Zergatik? Eta noiz? Zenbaiten ustez, inguruko enpresa-gizon batek Adolf Hitlerri bere 49. urtebetetzean egindako oparia izan zen eta, beraz, 1938an landatu zituzten laritzak. Beste bertsio batek dio ekimena Schmidtena berarena izan zela, eta Hitlerren Gazteriako kideen laguntza izan zuela oparia prestatzeko. Beste teoria batek ere tokiko enpre-

saburu bat du protagonista, baina oso bestelako arrazoiak ditu oinarri: 1937an enpresaburua BBC irrati entzuteagatik salatu eta kontzentrazio esparru batera eraman omen zuten; inguruko biztanleek, beldurtuta eta erregimenarekiko leialtasuna erakutsi nahirik, sinbolo biziduna altxatzea erabaki omen zuten.


Kontuak kontu, airetik eta urteko egun jakin batzuetan soilik ikus zitekeenez, nazien gurutzeak 60 urte baino gehiago iraun zuen. Tokia nazien jarraitzaile berrien erromesaldi edo kultu gune bihurtu zitekeelakoa, 1995ean Alemaniako gobernuak 100 laritzetatik 47 eraustea erabaki zuen, sinboloa desitxuratu asmoz. Baina ez zen nahikoa izan, eta 2000. urteko azaroaren 14an zenbait komunikabidek Zernikoweko basoan egindako argazkia –goian jaso duguna– argitaratu zuten, gainerako laritzek oraindik ere esbastika osatzen zutela erakutsiz. 2000. urteko abenduaren lehenean beste 27 laritz moztu zituzten eta, azkenean, 60 metroko ezkutuko esbastika betiko ezabatu zuten. ■



Arrastoak

Eraikin musulmanetara sartzeko ate birtuala

AFRIDI INN



3D MEKANLAR turkiar webgune pribatuak 200dik gora eraikin musulman birtualki bisitatzeko aukera zabaldu du, www.3mekanlar.com helbidean. Turkiako monumentuez gain, beste hainbat herrialdetako islamiar eraikinen barru nahiz kanpoaldeko 360°ko argazki panorami-

koak biltzen ditu guneak. Gainera, Istanbulen Topkapi jauregiko eta Meskita Urdineko (argazkian) bisitaldia xehetasun handiagoz egin daiteke, gainerako eraikinetan bisitariak ikuspuntu bakarra baitu, eta bi horietan, aldiz, nahi adina (hamalau eta hamar, hurrenez hurren). ■

«Sakonean mantentzen den zerbaitek etengabe bultzatzen du gazteria aurrerantz»

Pinpilinpauxak egun ez luke hegan egingo, atzo arrautza edo beldarra izan ez balitz. Aurretik zer izan den ez badaki ere, etengabeko eraldaketaren ondorio ditu gaurko gaitasunak. Baina zer gertatuko litzateke mitxoleta gazte horrek iraganean egindakoa gogora ekarri, aztertu eta etorkizunaren mesedetan jarriko balu? Erantzunaren zantzuak eman dizkigute Tximeletak proiektuko kideak diren Ander Perez eta Alaia Martinek Zarauzko Putzuzulo gaztetxean.

| AXIER LOPEZ |

Testua eta argazkiak



TERMOMETROA • TXIMELETAK GAZTE PROIEKTUA

Zer da Tximeletak eta nondik abiatu da proiektua?

ANDER PEREZ. Tximeletak Topatu.info-k martxan jarri duen egitasmoa da. Komunikazio proiektuak eraberritze prozesu batean murgiltzeko erabakia hartu du, batetik Euskal Herriko gazte mugimendua eraldatze fasean dagoelako, eta bestetik, gaur egungo komunikazio ohiturei hobeto egokitzeko. Bide berriari ekin aurretik, eta eraginkortasunez burutzeko, iraganean egindakoa kontuan hartu behar dela ikusi genuen. Hau da, atzera begira jartzea, aurrera begirako perspektiba osoa izan dezagun. Tximeletak ariketa horren emaitza da.

Dokumentala izango da proiektuaren azken emaitza, ezta?

A. PEREZ. Bai, azken hiru hamarkadetan gazte mugimenduak burututako ekimen eta borrokak bilduko dituen dokumentala. Gazte mugimenduak izan duen bilakaerak Euskal Herrian utzitako fruituak jasoko ditu. Ez da dokumental hutsa izango, ordea. Elkarlana bultzatu nahi izan dugu. Gazteei deia luzatu diegu herrietatik materiala eta informazioa bidaltzeko eta hala, denon artean memoria berreskura dezagun.

Gazte mugimenduko bideoak, argazkiak, pegatinak... biltzen aritu zarete. Zailtasunak izan al dituzue mota honetako materiala eskuratzeko?

A. PEREZ. Material dezente heldu zaigu bide anitzetatik eta jende askoren laguntzari esker.

ALAIA MARTIN. Kontuan hartu behar da mugimendu hori garai



Dokumentalean agertuko diren pertsona guztiei azken galdera bera egin diete: "Hitz bakar batean zer da Euskal Herriko gazte mugimendua zuretzako?" Erantzuna ematea galdetzea bezain erraza ez dela egiaztatu ostean, Martinek "energia" erantzun digu eta Perezek "kideak".

batzuetan legez kanpo bizi izan dela, eta beraz, material hori lortzea ez da hain erraza izan eta arreta handiagoa jarri behar izan dugu.

A. PEREZ. Guk, asko bilduta ere, ziurrenik hartu duguna ez da gazte mugimenduan egin den lan guztiaren lagin bat baino. Eta horrek, hain zuzen ere, erakusten du gazte mugimenduaren aberastasuna, azken urteetan zenbat eta zenbat gauza egin diren.

A. MARTIN. Bildu dugun materialaren kantitateak zein aniztasunak benetako mugimendu baten eta egiazko borroka zabal eta koloretsu baten lekukotasuna ematen du nolabait.

Izen hippie xamarra aukeratu duzue...

A. MARTIN. Tximeletak, huts-hutsean esanda, beharbada ez da orain arteko gazte borroka aurrera eramateko moldeei zuzenki atxiki den hitz bat, baina uste dugu esentzian, tximeleta batek sinbolizatu lezakeen guztiaren baitan, badela adierazgarria edo sinbolikoa. Tximeleta ez delako izaki mistiko magiko hippie huts bat. Eraberritze prozesua da, etengabeko aldatzea da.

A. PEREZ. Tximeletak transformazio propioa bizi du, baina prozesu horretan zehar sortzen den izaki berri edo izate modu bakoitza ez da ezer aurrekoa kontuan hartzen ez bada. Beti da aurrekoaren bilakaera edo ondorioa. Azken hiru hamar-

Denok maite dugu gure herria,
baina aukeran, nahiago EUSKARAZ!



kadetan gazte mugimenduak etengabeko eraldatzea bizi izan du eta aldaketa oro ez da inoiz huts-hutsetik eman. Erabaki bakoitzak oinarrian izan du aurretik izandakoa.

A. MARTIN. Garaietara egokitzeko gaitasun hori islatzen duen animalia bezala ikusten dugu. Trantsizio momentu honetan eta atzera begiratzeko etapa honetan metamorfosi gaitasun hau adierazgarria izan zitekeela ikusi genuen.

Elkarrizketak dira dokumentalaren oinarri.

A. PEREZ. Gazte mugimenduen borrokak aurre egin behar izan die hainbat testuinguru, garai politiko eta sozialei, eta beraz, ezinbestekoa iruditzen zitzaigun garai ezberdinetako jendearen adierazpenak jasotzea. Honez gain, gazte mugimendua anitza da, eremu askotan izan da presente eta lan-eremu adierazgarrienen lekukotasunak jaso ditugu.

A. MARTIN. Izatez, nahiko zaila da hainbeste partaide izan dituen eta 30 urtetik gorako bizitza duen mugimendu edo borroka batez dokumentala egitea. Ertz askoko lana da. Gure ikuspegia eman nahi izan dugu eta horrez gain, gudan ez zeuden kanpoko ikuspegiekin elikatu dugu. Nolabait lan hau guztiona izan zedin edo ahalik eta osoena behintzat.

A. PEREZ. Adibidez, batetik badauzkagu duela 30 urte gazte borrokari lotu zitzaion jendearen adierazpenak: Josune Manterola, Mikel Zubimendi, Mikel Etxaburu edo Maitane Intxaurraga, eta bestetik; Jon Telleria edo Aitziber Plazaola militante gazteenak. Lan-eremuei dagozkenez, intsumisioaren borrokan murgildutako Gotzon Iparragirrerena, gartzetxeen borrokan buru-belarri ibilitako Bea Arana-rena, ikasle mugimenduaren lekukotza eman duen Igor Arroyorena...

Tximeletak.net webguneak lan tresna garrantzitsua izan duzue.

A. PEREZ. Bai. Gaur egun ez da nahikoa etxe barruan dokumental bat produzitu, kaleratu eta gazteriarri amaituriko produktu bat ematea. Prozesua bera kontatu nahi izan dugu eta uneen uine egiten ari ginena azalerratu dugu webgunearen bitartez. Elkarrizketak egin ahala hauen zatiak sareratu ditugu eta horrela gure lanaren erakusgarri bilakatu dugu tximeletak.net.


Ariketa zaila bada ere, orain arte egin dituzuen elkarrizketen artean zer nabarmenduko zenukete?

A. MARTIN. Eremuen zein garaiaren arabera nabardurak izan dira. Izan da jendea oso era pertsonalean hitz egin duena eta perspektiba handiz hitz egin duena. Egon da kritika eta auto-kritika puntu bat azalerratu duen jendea ere. Elkarrizketen aniztasun horrek berak eman dio kolorea lanari eta collage polit bat osatu da. Denon artean ikuspegi zabal bat ematea bideratu dugu.

Garai eta esparru anitzeko militanteen adierazpenak izanik, ezberdintasunak ala bat-etortzeak azalerratu dira gehien?

A. PEREZ. Guzti-guztiek gazte mugimenduko parte izateak pertsonalki eman diena azpimarratu dute. Denek, eta hemen ez dago salbuespenik, praktika politikoa praktika pertsonal egin dute, eta beraz, ez dute kanpoko subjektu batez hitz egiten, norberari ekarri dionaz baizik. Horrez gain, nabarmentzekoa da, guztiek bizi izandakoaz oso oroitzapen ona adieraztea. Norberaren bizitzari emandako aberastasun hori oroitzapen gozo bat da guztientzat.

A. MARTIN. Garai guztietako militanteek komunean daukatena tximeleta izaera dela esango nuke. Jakin dute egoera aztertzen, egoerara egokitzen ikuspegi kolektibotik, etorkizuna desiratzen, era kolektiboan bizitzen eta antolatzen, hain juxtu, etorkizun berri horren lorpenerako.



*...ametsetan
bezala*

**ATXASPI
HOTELA**

Bittiria, 24
Lesaka (Nafarroa)
T.: 948 637 536
hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com



Azaroaren 29an aurkezpena

Hil honetan Interneten sorpresatxoren bat izango dela aurreratu digute, baina momentuz ziurra dena da dokumentalaren aurkezpen publikoa azaroaren 29an Donostiako Doka Kafe Antzokian egingo dutela. Abenduaren hasieran Durangoko azokan salgai jarri ostean, aurkezpen dinamikari helduko diote, herriz herri eta eskualdez eskualde lana bere protagonis- tekin, gazteekin konpartitzeko.

Eraldatzeko grina eta ilusioa nabar- menduko nituzke.

A. PEREZ. Maitane Intxaurre- ragak zioen militantzia eta gazte mugimenduaren parte izatea ezin dela ulertu egunean horretarako gorde- tako ordu batzuk bezala. Hau da, militatu eta etxera joatea. Aitzitik, zure konpromisoa bata ala bestea izan, militantziak badakarrela zure bizitzarekiko eredu bat barneratzea eta bizi-eredu horrekiko eguneko 24 orduetan koherentea izatea. Hori gaur egunean aplikagarria da, gazte mugimenduak aurrerantzean izan- go dituen erronka berrietarako.

Jarrai garaiko "trafikanteak eta txakurrak kanpora" moduko lelo zuzen eta gogorretatik, egungo "Indepenfresa eta Sozialimoia"ra bada alderik.



Ezkerretik eskuinera, Tximeletak egitasmoa osatzen duen lan taldea: Unai Bergara bilbotarra, Ander Perez iruindarra, Iraitz Salegi bergararra, Aitor Martinez gernikarra, Alaia Martin oiartzuarra eta Arkaitz Artola donostiarra.

A. MARTIN. Etengabe ari dira garaiak aldatzen eta zaila da perspek- tibaz aztertzea. Aldatu dira, beharba- da, 30 urtetik hona estetika eta lan egiteko modua, terminologia, borro- kak lantzeko eta aurrera eramateko era. Hori seinale ona da. Orain dela 30 urteko terminoetan ariko bagina eta eboluzionatu ez bagenu, orduan litzateke arriskutsua. Atzean geratu izanaren sintoma litzateke.

A. PEREZ. Mikel Etxaburuk konta- tzen zigan haiek 80ko hamarkada horretan egiten zituzten gauza asko zentzurik gabekoak iruditzen zitzaizkiela, baina gerora, logika hartu dutela eta horrek ere gaurko gazteengan izan duela eragina. Beraz, gaurko gazteok egin eta egingo ditugun gauza asko zentzu gabeak badira ere, etorkizunean logika hartuko dutela. Ildo hone- tan, unean uneko perspektibarekin gauza batzuk kontraste handikoak direla irudi lezake baina aldaketa horiek esentzia mantenduz gero,

helburuak mantentzen badira, logi- ka hartuko dute etorkizunean.

A. MARTIN. Beharbada trantsizio garai batean gaude eta hori ikus liteke bai estetikari, bai terminoen erabilpe- nean ere. Egia da aldatu dela gogorta- suna, edo leundu dela diskurtsoa modu batean, baina ideiak dira hain justu ahuldu ez direnak. Eta hor dago gakoa. Dokumentalean belaunaldi ezberdinetako gazte borrokako partai- deek iraganaren lekukotasuna emateaz gain, aurrera begirako ikuspegia eman dutenean, nahiko erretratu antzekoa egin dute. Nabardura bertsuak azpi- marratu dituzte, eta orohar, bat etorri dira denak ere, aurrera begirako bide- tan, moduetan eta mantendu behar- ko baloreetan. Egokitze berri honen ezaugarri nagusietan bat egin dute askotan eta horrek adierazten du hor badagoela zerbait sako- nean, etengabe mantent- zen dena eta etengabe bultzatzen duena gazteria aurrerantz. ■





**etxe
pare**
EUSKALINSTITUTUA
INSTITUTOVASCO
BASQUEINSTITUTE

Sasi guztien gaintik, laino guztien azpitik,
zatoz mundura euskararen eskutik!

www.etxepareinstitutua.net





HAY OTRA FORMA BADA BESTE MODU BAT



euskaraz ere, NATURALITASUNEZ

Harremanetan euskara naturaltasunez erabiltzea funtsezkoa da zerbitzu ona eman ahal izateko. Euskadiko Kutxan, zurekin euskaraz aritzea ez da aparteko aukera bat, gure nortasunaren eta gure izaeraren berezko ondorioa baizik. Izan ere, geurea zaintzea gustatzen zaigu, geure ezaugarri bereizgarriei eustea eta iraunarazten laguntzea, etorkizuna bermatzeko. Izan ere bada euskara bizitzeko beste modu bat... naturaltasunez.

Ikasgaien bi heren katalanez

Universitat Autònoma de Barcelonako irakasleek derrigor ezagutu behar dute katalana. Ikasgaien %65 katalanez eskaintzen dituzte. Kataluniako unibertsitate publikoetan antzekoa da hizkuntzaren egoera. Hori bai, globalizazioaren izenean, gaztelania eta ingelesa indarra hartzen ari dira.

| LANDER ARRETXEAA |

KATALUNIAKO hezkuntza sistemak katalana eta gaztelania ulertzeko eta erabiltzeko gaitasunaz hornitu behar ditu ikasleak. Hala zehazten du 1998ko Hizkuntza Politika Legeak, eta besteak beste, ikasleak jatorrizko hizkuntzaren arabera talde edo gune desberdinetan banatzea debekatzen du. Hala, gazte katalanek, salbuespenak salbuespen, bi hizkuntza ofizialak menperatzen dituzte unibertsitatera hel-tzen direnerako.

Derrigorrezko Hezkuntzan, gehienek katalana izan dute bidelagun. Goi-mailako ikasketetan aldiz, irakaslearena da ikasgaiaren oinarriko hizkuntza hautatzeko ardurar. Ikasleek lanak eta azterketak katalanez edo gaztelaniaz egiteko aukera dute. Nolanahi ere, unibertsitate bakoitzak bere arautegia osatzeko askatasuna du eta badira katalanaren aldeko hautua sustatzeko neurriak.

29.000 ikasletik gora dituen UAB (Universitat Autònoma de Barcelona) Kataluniako zazpi unibertsitate publikoetako bat da. Errektoreak eta irakasleek osatzen duten Hizkuntza Politikako Batzordea arduratzen da hizkuntza planak sortzeaz eta arautzeaz. Horiek betearazteko, ikasleak eta irakasleak kide dituen batzorde bat dago fakultate bakoitzean.

Komunikazio Zientzien eraikinean bada bat, eta Anna Mari



Anna Mari Torrent irakaslea hizkuntza batzordeko kide da, eta dioenez, UABko oinarriko hizkuntza katalana da. Hala ere, aitortu du pasilloetan ikasleek gaztelania asko darabiltela.

Torrent da haren presidentea. Beste hainbat irakasle bezala, katalanaren “biziraupena sustatzeko” asmotan egin zen batzordeko kide, baina gaur egun, oinarriko hizkuntzak katalana izaten jarraitzen badu ere, jorratzen dituzten helburuak bestelakoak dira. Hizkuntza plan zaharrak (2008-2010), horretarako gai diren irakasleei hala egiteko eskatuz, ikasgaien %70 kata-



lanez izatea zuen helburu. Plan berriak (2011-2015) ordea, ingelesaren eta gaztelaniaren garrantzia azpimarratzen du, “globalizazioa aitzakia”. Azken planarekin ados ez badago ere, Torrenten ustez

“katalana ez da baliagarria unibertsitateak sortzen dituen edukiak mundura zabaltzeko”.

Ikasgaien bi heren katalanez

UABko hizkuntza erabilerari buruzko azken datuak 2006-2007 ikasturtekoak dira. Aurten, datuok berrietzeko galdeketa martxan jartzea eskatu diote errektoretzari. Datuen arabera, graduiko ikasgaien ia bi herenetan (%65) katalanez eskaintzen dira edukiak, heren batean (%33) gaztelaniaz, eta gutxi batzuetan (%1) beste hizkuntzaren batean, ingelesez nagusiki. Graduondokoetan murriztago ageri da katalana.

Anna Mari Torrenten usteetan, gaur egungo errealitatea ere antzekoa da, eta ez dago desberdintasun handirik UABko eta Kataluniako beste unibertsitateetako datuen artean. Haatik, hizkuntzen erabilera portzentajea nabarmen aldatzen da ikasketa esparru batetik bestera. Katalanak Irakaskuntzan du nagusitasun nabariena (ikasgaien %91), haren atzetik Informatika (%79), eta Biozientziak (%78). Itzulpengintzan eta Enpresa eta Ekonomia Zientzietan aldiz, ikasgaien erdia baino gutxiago dira katalanez: %27 eta %42, hurrenez hurren.

Irakasleek katalana jakin behar dute

Datuak datu, unibertsitatearen oinarritzko hizkuntza katalana dela azpimarratu du Torrentek, eta hala erakusten dute Bellaterrako campusean barrena katalan hutsean idatzirik dauden kartel eta seinale guztiek. UABn lan egin nahi duten irakasleek katalanaren oinarritzko ezagutza frogatzen duen ziurtagiria behar dute, edo behintzat, lanean hasten direnetik bi urteko epean eskuratu, unibertsitateak berak

ordaintzen dituen ikastaroen bitartez. Idazkaritza eta jangela zerbitzuko langileek ere, lehenetsia dute haien eginkizunetan.

Liss Roura Komunikazio Zientzien fakultateko ikasle ordezkariak irakasleei katalana ulertzea eskatzea goraiatu du, baita horretarako erraztasunak ematea ere. Halaber, “kultur eta nazio ondare” den neurrian, unibertsitatean, katalanarekiko errespetuzko jarrera nagusitzen dela uste du. Ados dago egungo egitura mantentzearekin: “Elebidu-

Ongietorri Linguistikoa izeneko ekimenak ikasle boluntario kataluniarrak biltzen ditu, kanpotarrak bertako hizkuntzan eta kulturaren murgildu ditzaten

na izatea abantaila da”. Bere hitzetan, independentziaren aldeko mugimendua dela eta, hizkuntza gaurkotatzen handiko gaia da. Hala ere, axolagabekeria eta parte hartze gogo eza nabari du Rourak ikas-kideengan.

Pasilloetan gaztelania nagusi

Bada estatistiketan laburtzea gaitzagoa den gertaera: ikasleek haien artean komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntza. Torrenten hitzetan, “ikasgelatik kanpo gaztelania asko erabiltzen dute ikasleek, hala entzuten da pasilloetan”. Halaz ere, katalanez soilik mintzatzen denik ere badela aitortu du.

Liss Rourak aldiz, gaztelania eta katalana, biak neurri berean erabiltzen direla deritzo, eta Bartzelonako biztanleriaren zati handi bat Espainiako hainbat erkidegotatik etorri izanari egotzen dio egoera hori. “Izan ere, unibertsitateari datorren hainbat ikasleek gaztelania du ama

hizkuntza. Lleidako eta Gironako unibertsitateetan aldiz, katalanez mintzatzeko joera da nagusi, sentimendu nazionala indartsuagoa baita”.

Erraztasunak kanpoko ikasleentzat

Pasilloetan, dela haien kabuz, dela Sicue edo Erasmus bezalako programen bitartez, asko dira Espainiatik eta mundu osoko hainbat estatutatik gradu eta graduondoko ikasketak osatzera UABra etorriak direnak. Hizkuntza berrira eta unibertsitateari moldatu beharra duten 6.420 nazioarteko ikasle ari dira aurtengo ikasturtean, eta badira lan hori erraztera bideratutako makina bat ekin-tza.

Hizkuntza zerbitzuez (ikastaroak, tituluak, ziurtagiriak...) arduratzen den Servei de Llengües erakundearen eskutik, doako katalan klaseak eskaintzen zaizkie kanpotik etorri diren ikasleei. Horrez gain, *Ongietorri Linguistikoa* izeneko ekimenak ikasle boluntario kataluniarrak biltzen ditu kanpotarrak bertako hizkuntzan eta kulturaren murgildu ditzaten. Hizkuntzak elkarrizketa bidez landu nahi dituzten ikasleen arteko kontaktua errazteko webgunea ere bada.

Etorkizunera begira, ezinbestekotzat jotzen dute UABn ingelesaren erabilera zabaltzea, baina bide horretan ez dute katalanaren nagusitasuna atzean utzi nahi. Anna Mari Torrenten ahotan, aurreko planaren helburuak ez ziren bete eta goizegi da plan berriak zehaztutako ondorioak neurtzeko. Liss Roura ikaslearen ustez, Kataluniako ideologia antzietako eragileak eroso eta ados daude gaur egungo hizkuntza politikarekin. ■



Babeslea: Emun

Erronketan aurrera egiten lagutzeko gaude.

Euskara planen bidez hizkuntzak eraginkortasunez kudeatzen dituen talde profesionala gara.

- HIZKUNTZA AHOLKULARITZA
- EUSKARA PLANAK (enpresa, administrazio eta bestelakoetan)
- EUSKARA PRESTAKUNTZAKO MODULU BEREZIAK
- ITZULPEN ZERBITZUAK

EMUN
LANA EUSKALDUNTZEKO KOOPERATIBA

www.emun.com
www.lantalan.com

Herritar gehienak babesik gabe

Espainiako Gobernuak oso baldintza zehatzak betetzen dituzten kasuetan soilik geraraziko ditu etxetik kaleratzeak, bi urtez. Dekretuak ez du aldatuko EBk gaitzetsitako hipoteken legea.

| URKO APAOLAZA AVILA |

ERRENTA ESKASEKIN irauten duten milaka familia hipotekatu, babesik gabe utziko ditu Rajoyren Gobernuaren lege-dekretuak. Gobernuak “muturreko egoeran” dauden gutxi batzuen kasuak soilik geraraziko ditu, bi urteko moratoria aplikatuz. Ez du azaldu nahi izan zenbat laguni eragingo dien, baina etxetik kanporatuak izateko arriskuan dauden herritarren gehiengoak ez du aukerarik izango.

Lau kideko familia: amak egun erdiko lana du, aitari paroa bukatu zaio, eta 3 urtetik gorako bi seme-alaba dituzte. Lege-dekretu berriak ez ditu horrelako egoerak aintzat hartzen, eta hipoteka ordaindu ezean, etxetik botako dituzte.

Oso kasu zehatzen kanporatzeak soilik geraraziko dituzte: 19.200 eurotik behera irabazi eta hipotekaren kuota errenta horren erdia baino gehiago denean, eta horrez gain, familiaren inguruko baldintza hauekiko bat betetzen dutenean: familia ugaria edo bi haurren guraso bakarra izatea; 3 urte baino gutxiagoko haur bat egotea; familiako kideren bat ezindua, menpekoea edo gaixo larria izatea, edo %33tik gorako ezintasuna



duen pertsona langabeturen baten kargu izatea; kide guztiak langabezian eta prestaziorik gabe egotea; genero indarkeriaren biktima izatea.

“Pobreak euren artean lehiatzen jartzea bezala da”

Etxetik kanporatzeen kontrako taldeen esanetan dekretua “adabakia” besterik ez da eta ez du ezertarako balioko. Bartzelonako hipoteken kontrako mugimenduko Ada Colauk Europa Press agentziari honakoa adierazi dio: “Dekretua zentzugabea da, pobreak euren artean lehiatzen jartzea bezala da, ea zein den pobregoa”.

Jadanik martxan dauden 400.000 kanporatzeak bere horretan utzi ditu Espainiako Gobernuaren erabakiak, ez baitu atzerako eraginik; ez du aurreikusten etxearekin ordaintzeko modurik, eta Hipoteken Legea ez du ukitu ere egiten. Julianne Kokott Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko abokatu nagusiaren irizpidearen arabera, Espainiako hipoteken legeak ez dio babesik ematen herritarri, bankuen “neurritz kanpoko klausulen” aurrean.

Egunero Hego Euskal Herrian batez beste 17 familia bota dituzte euren etxeetatik azken hilabeteotan. Azaroaren 9an Amaia Egañak bere buruaz beste egin zuen Barakaldon, etxetik kanporatu behar zuten unean. Gertaerak sumindura sortu du jendartean eta alderdi politikoak eta bankuak mugiaraztera derrigortu ditu, baina *Expansion* egunkarian irakurri dugun datu hotz bat gailentzen ari zaio gupidagabe justizia sozialari: Espainiako bankuek 489.000 milioi euro dituzte euren balantzeetan etxebizitzaren hipoteken kontura. *Dena nabi, dena galdu* dio esamoldeak. ■



tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com

IKAk 'Milaka argi Nafarroan' kanpaina jarri du abian

IKAREN KANPAINA duela egun batzuk hasi da eta 2013ko Aste Santuan bukatuko da. Bi helburu ditu kanpainak: batetik, Nafarroako euskaldunen sarea zabala dela adieraztea, eta bestetik, Iruñerriko IKAREN euskaltegiak diruz laguntzea.

IKAk Araban eta Nafarroan helduen euskalduntze eta alfabetatzean 40 urtetik gora daramatza eta euskaltegien sarea kezkatuta dago Nafarroan euskarak duen egoera dela-eta. Arduradunek diotenez, irakaskuntza arautuan eta helduen euskalduntzean aspaldian ikasle kopurua ez da handitu nahi beste. Gorakada nekezaren arrazoitzat asko dituzte: hel-

duak euskara ikasteko laguntzarik ez izatea; euskarazko haur eskolarik ez egotea; euskarazko komunikabideek erraztasunik ez izatea eta administrazioak berak euskarazko komunikabiderik ez izatea; lanpostu ia guztietan euskarak hutsaren hurrengo balio izatea...

Webgunea (www.milaka-argi.com) jarri dute abian kanpaina bideratzeko. IKAREN euskaltegiak diruz lagundu nahi dituenak hortxe dauka aukera bere diru ekarpena egiteko. Bide batez, nafarra bada laguntzen duena, mapan argi bat piztuko da dagokion herrian. Horrela, Nafarroako euskaldunek osatzen duten sarea ere ikusi ahal izango da.

Gazteen arteko mahai-inguruak euskararen inguruko kontzientzia pizteko

GAZTELUZOK, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak antolatu dute abenduaren 3rako *Ika Mizka* ekimena. Helburua gazteen artean euskararen erabilera bultzatzea eta hizkuntzaren inguruko kontzientzia sortzea da. Abenduaren 3rako, Euskararen Nazioarteko Egunerako,

gazteek izena eman ahal izango dute euskaldun ezagunekin mahai-inguruetan parte hartzeko. Asmoa da euskara erabiltzerakoan sortzen zaizkien egoerak, sentimenduak eta abarrak elkarbanatzea. Azaroan, *Gaztezulok* tankera horretako mahai-inguruak zintzilikatu ditu sarean (gaztezero.com/ikamizka.php).

Bahea

Mikel Irizarrek *piperhautsa* blogean *Soinujolearen semea antzezlan*a ikusita egindako gogoeta:

"Tanttaka taldearen taulartze ederraren gainetik nagusitu zitzaidan hizkuntzarekiko harridura. Ze antzezpeanean gaztelaniaz mintzo dira amerikanoak, guardia zibilak eta fatxak, eta baita haiekin ari diren euskal hiztunak ere. Zer dela eta? Zergatik sartu gaztelania barra-barra euskal liburu baten euskal bertsoan? Ez al da euskara hizkuntza konpletua, edozein egoera dramatiko adierazteko beste? Derrigorrez behar al du gaztelaniaren makulua grazioso edo adierazkor izateko?"

Akatsa ez dago hizkuntzan, baizik hitzuneran. Hitzun desorekatuek ez dute sinisten bizitzaren edozein zirkulu osorik euskaraz egin daitekeenik. Ez diote euskarari nahikotasunik aitortzen."

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Kapitalismoaren esklaboak

KAPITALISMOAREN AURPEGIA krudeltasun osoz ari da azaltzen iritzi publikoaren aurrean. Kapitalismo basatiak aldizka suizidioak eragiten ditu, eta langileak hiltzen ditu euren lantegietan. Kapitalismo hori, ordea, basakeria itzelez agertu zaigu etxetik kanporatuetan. Amaia Egaña da, oraingoz, azkeneko hildakoa Euskal Herrian. Kapitalismo horrek izenak ditu: enpresa handiak, bankuak eta kudeatzaile politiko eta judizialak.

Banku horiek dira, hain zuzen, "lobby" baten gisan aritu direnak Espainiako Ministroen Kontseiluko mahai azpian, eragozteko euren kontrako neurririk har dezaten etxetik kanporatuen auzian. Bankuak ez dira argazkian azaldu. Baina eurek zehaztu dituzte erabakiak. Hala, Espainiako Gobernuak ez du 1909ko Hipoteken Lege zaharra ukitu nahi izan, bankuen presioaren ondorioz. Lege hori lurjabe handiekin eta bankariekin zituzten harremanak arautzeko sortu zen. Justiziako sektore batzuen arabera, "prozesu judizial oso oldarkorra da

zordunarekiko, hipoteka maileguaren eskriturari sententzia judizial bati baino eraginkortasun handiagoa onartzen dio, eta zorduna oso aukera gutxiarekin uzten du kontra egiteko". Horregatik, Gobernuak, legea aldatu beharrean, dekretua agindu du, etxetik kanporatzen zati txiki bat bi urtez geraraziz... Eta gero zer? Etxetik kanporatuei "Banku txarraren" jabetzako etxebizitza parkea eskaini diete alokairu sozialean. Hemen ere bistan da bankuen presioa. Dirua irabazten segituko dute etxetik kanporatuen alokairuaren kontura.

Legea ez aldatzearen, Gobernuak zertxobait "mugitu" da suizidioen eta mobilizazio sozialaren aurrean. Bankuen eta Troikaren (Nazioarteko Moneta Funtsa, Europako Banku Zentrala, Europako Kontseilua) esklabo direnez, hildako gehiago beharko al dituzte, pixka bat gehiago "mugitzeko"? Halakoxea da kapitalismoa: krudela eta hiltzailea.

Juan Mari Arregi



Siriako agintariek etsai handiegia daukate: idortea

Sirian hirietako matxinada hasi zena gerra zibil bihurtu da hilabete gutxitan. Ekialde Hurbileko estaturik egonkorrena ei zena irteerarik gabeko gatazkaraino faktore bat baino gehiagok eraman badute, bat geratu da kasik inork aipatu gabe: klimaren aldaketak sortutako idorte luzeari aurre egiten ez duela asmatu Al-Assaden Gobernuak.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

ISILTASUNAREN ERRESUMA DEITU zion Siriari Al Jazeera 2011ko otsailean, Egipton Hosni Mubarak-ek agintea utzi eta bi egunera. “Ekialde Hurbil osoan zabaldu diren arren protestak, orain arte iraultzaren izpirituak ez du Sirian sartzerik lortu. Siriak ere baditu Egiptok eta Tunisiak bezala agintari autoritarioak, ustelkeria eta zailtasun ekonomikoak. Baina analistek diotenez, estatuaren aparatu zanpatazaleez gain presidentea nahiko popularra izatea eta erlijio aniztasuna direla medio zaila dirudi Sirian horrelako matxinadarik gertatzea”. Hilabete baino lehen hasi ziren lehenbiziko liskarrak.

Hain egonkorra zirudien Sirian sua piztu duten faktoreak aipatu izan dira, herritarren demokrazia nahia, sistema ustela desegitea, geopolitika, urrutiko eta hurbileko potentzien esku hartzea eta beste. Ia inork ez du nabarmendu Shahrzad Mohtadik *Bulletin of the Atomic Scientists*en landu duena: *Climate change and the Syrian uprising*, Klimaren aldaketa eta Siriako matxinada.

Mohtadi Columbiako unibertsitatean zientzia politikoetan lizenziatutako gaztea da. Haren ikerlan bat oharkabean pasako zen baldin eta ez balitz argitaratu *Bulletin* horretan. Energia atomikoaz gain zientzialariak kezkatzen dituzten

beste hainbat gaiez plazaratzen ditu materialak prestigio handiko aldizkariak, erredakzioaren kontrol zorrotzaren galbahea gaindituta.

Mohtadik oroitarazi du gaur Siria dagoen parajeetan ekin ziola gizakiak landareak erein eta abereak etxekotzeari. Neolitikoa, laborantza, abeltzaintza, hemen hasi ziren. Duela 12.000 urte zen hori. Geroztik Eden hark galdu zituen Babiloniatik Mediterraneora arte hedatzen ziren oihanak, desertifikazioari aspaldi emana zion bidea. Baina azken lehortea bezalakorik ez zen inoiz ezagutu han.

1900dik 2005era sei idorte handi nozitu ditu Siriak. Horietan urte osoko euriak heren bateraino urritzen ziren, baina uzta sasoi bakarri zioten eragiten. Nekazariak gorderik zeuzkaten mozkinekin egiten zieten aurre. Baina azkena 2006an hasi eta lau urtez luzatu zen, 2010a arte. Inoiz baino euri gutxiago egin die gainera.

Zenbateraino izan da agorraldi luze hori klima aldaketaren ondorio? Adituak ez datoz bat. Aldiz, klimaren aldaketarako gobernu arteko Panel famatuak aspaldi iragarri zuen Ekialde Hurbila izango dela etorkizun hurbilean idorte handiek gehien zigortuko dituzten eskualdeetako; 2050 urterako Siria aldeak gaurko eurien %29 eta %56 artekoa galduko ei ditu.

Famous Wonders webguneak eskaintzen duen iduri eder honetan, Hama hiriko errota erraldoiak eta akueduktoa, Orontes ibai ertzean. Argazkikoa *Al-Mohammediyah* gupila da, Hamako meskita nagusirako ura biltzen duena. Orontes ibaiko ura alboan dituen erribera zabalak baino askoz beheragotik doanez, errota handiakin igotzen zuten ura akueduktuetaraino, horietatik gero karrikara eta soroetara eramateko. Argazkikoak 20 metroko diametroa dauka eta zurez egina dago; XIV mendean eraikia da, Bizantziar inperioa erori baino lehen. Neolitoa inguruotan sortu zenetik, hamaika zibilizaziok eduki du egoitza bertan: Ebla zibilizazioa, hititarrak, persiarrak, greziarrak, erromatarrak, arabiarrek, otomandarrek... Batak bestearen aurrerapenak baliatzen zituen uraren kudeaketan. Beti bezala gaur ere ura aberastasun eta gatazkagai daukate.

Sikateak 1,5 milioi nekazari behartu ditu soroetatik ihes egitera. Mendeetan gari eta beste laboretan aberats ziren landetatik, hegoaldeko hirietara gehienak. Askok atzerrira jo dute lan berri bila. Bashar Al-Assaden Gobernuak bat batean topo egin du bere aita Hafezen garaietatik nekazaritzan ezarritako planen porrotarekin.

Hafez Al-Assadek Siria herrialde moderno bilakatzeko ahaleginean lehentasuna eman zion nekazaritzari, erregimen baazistak laborarien sostengua behar zuelakoan. Elikagaiak produzitzen Siriak burujabe izan behar zuen, 1980rako garitan bederen lortua zuen, eta jakiak, gasolina eta ura subentzionatu zituen. Soroetan kotoia ereiteari ere ekin zion, ordea...

Edengo soroetan goserik

Al-Assadek garrantzia estrategikoa emanik, Siria kotoia erein eta esportatzen berezitu zen. Labore horrek ur asko behar duenez, ureztatze sistema garestiz bete ziren hango ibarrrak. Ureztatze garestiak bai, baina ez eraginkorrak. Are gutxiago dagoeneko zelarria erakusten ari den klima aldaketa garaietan.

Mohtadik aipatzen du *The Center for Climate and Security* erakundearekin Francesco Femia eta Caitlin Werrellek 2012ko otsailean plazaratu



tu duten *Syria: Climate Change, Drought and Social Unrest* azterketa. Hauek erakutsi dute nola nekazariek jo behar izan duten lurpeko urak ustiatzera, irrigatze sistema berriek kotoi soroetara eraman dutelako ibaietako ura.

Putzuen kopurua bi halakotu zen, efizientziarik gabeko urreztatzeak diruz lagundu, lurpeko uraren bila gero eta sakonago zulatzen behartu... eta 2006ko idortea iritsi zen. Ordurako, mundu mailan gariaren eta beste laboreen garestitzea abiatua zen. Siriak, gainera, gari altxorak salduak zituen, bere nekazaritza modernotuan fidaturik.

Zenbait adituren ustez Siriak ez du ezagutu azken lehorte hau bezalakorik 12.000 urteotan, nekazaritza

hasi zenetik. Herrialdearen hiru laurdenak hondatu ditu. Ehunka herri hustu. Laboreen hiru laurdenak galdu. 2008tik berriro garia inportatzera behartu.

Baina garagarrak ere uztarik eman ez duenez, alhagai faltan Siriak bere azienden laurdena galdu du, ipar-ekialdeko zenbait eskualdetan %80. Eskualde kiskaliotan herritarren %80 bizi da txirotasunean. Nazio Batuen Erakundeak 2010eko agiri batean azaldu zuenez, horietako askoren otorduetan ez zen ogia eta te gozatua besterik. Zer besterik da gosea?

Egarritik eta gosetik ihesi landa eremuetatik alde egindako milioi eta erdi siriarrak Damasko, Hama, Homs, Alepo eta Dara'ara jo dute,

hauen aldirietako txabolategietan topo egiteko Irak eta Palestinatik iritsitako beste bi milioi etorkinekin.


Hain kontrolpean zirudien Sirian liskarrak nola hasi ziren honela kontatua du *New York Times*-entzako eskualde hartan luzaz aritu den Anthony Shadidek: "Jende asko harritu zen matxinada hasi zenean 2011ko martxoan Dara'a izeneko herri hegotar pobretan, Hauran eskualdean. Lehorteak jota dago, txiropa da, Gobernuak abandonaturik dauka, Siriako landa eremu asko bezala. Hor gertatu zen 15 gaztetxok eskolako paretetan graffitiak marraztu zituztela. Gobernuaren kontrakoak. Gehiago zirudien gazteen oldartze bat, antolatutako beste ezer baino. Gobernuak, ordea, gogor jo zuen. 15 gaztetxoak atxilotu zituen, gero espetxera eraman eta han torturatu. Haien amak mehatxatu zituzten bortxatzearekin. Informe batzuk diote azazkalak atera zizkietela..."

Aditu gehienek oharkabean, nonbait, barrutik kiskaltzen zegoen Siriako gizartearen galdara. Baserritarrak sei urtez uztarik gabe. Herrialdeak dituen 22 milioi herritarretatik 1,5 bizimodu bila hiri bazterretan pilaturik. Milaka gehiago hirietan lehendik urriak diren lan aukeren bila borrokatzen. Zein neurritan izan da baldarregia Bashar Al-Assaden Gobernu eta zein heinetan klimaren aldaketak sortzen ditu larrialdi egoerak dikadura egonkorrena ere balantzaka jartzeko tamainakoak? ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Kutxabank, begira Nafarroako Kutxa

KUTXAKO lehendakari Xabier Iturberi elkarrizketa egin nion 2009an eta estatuek finantza sistemari jarritako dirutzak berreskuratzeko bermerik ba ote zuten galdetu nion. “Baietz uste dut, bankuak berriz martxan jarri eta gauzak ondo egiten badituzte itzuliko dira. Hori beti gertatzen da, egoera gaizki doanean nazionalizatzen da, gero egoera hobetzen denean pribatizatzen da eta bueltatzen da dirua. Posible bakarrik ez, hori da helburua, bestela iruzurra da, zuk diozun moduan, irabaziak banatu eta gero galerak denen artean ordaindu”.

Bankiaren erreskatea, edo Espainiako finantza sistema bideratzeko EBZk jarritako 100.000 milioi euroen ondoren, lekutan dira Iturberen berbak. Erabaki beza irakurleak iruzurrik baden ala ez. Iturbek argi zioen, aurrezki kutxek eta bankuek ohiko jardueretara itzuli behar zuten, nagusiki mailegura: “Betiko banku moldera itzuli behar da (...) Zein da konponbidea? Maileguetan marjina egokiak jartzea, bestela hortik ezin daitekeelako bizi. Inor ez da salbu geratu diruaren tentalditik”.

Elkarrizketa haren ondoren sortu zen Kutxabank eta honek ere ezin izan dio tentaldiari eutsi, “Espainiako legeek agintzen duten bezala, handitzea ezinbesteko baita”. Hori da euskal kutxen bankarizazioa defenditzen dutenek erabilitako argudio eta aitzakia nagusia, “bestela jan egingo gaituzte, eta desagertuko gara”. Eta hari horretatik tiraka, BBK-k Cajasur erosi zuen, arrisku maila oso handia hartuz. Eta izan dira beste ahalegin batzuk ere (Catalunya Bank, Caja de Aho-

rros del Mediterraneo...), zorionez ondo atera ez direnak.

Baina txikiagoek badute lekurik, horra Euskadiko Kutxaren adibidea. Hau desberdina da, kooperatiba delako, baina bidea badela erakusten du eta Europan txiki askok hautatzen dutena gainera (irakurri Adrian Zelaiaren elkarrizketa, ARGIA 2.339 zkia). Eztabaida funtsean zein da? Edo kutxa gisa edo banku txiki gisa jarraitzea, hemengo ohiko eskeman, edo handitu eta handiekin lehiatu. Kutxabankek handitzearen aldeko apustu egin du, horrek dakartzan arrisku guztiekin. Are gehiago gaur egun, EBZren aginduek aurrezki kutxak bankuetatik guztiz deslotzera behartuko dutelako, eta ez dagoelako garbi euskal instituzioek eta Kutxabankek zein bide erabiliko duten hemengo aurrezki kutxen ondare eta funtzio sozial historikoa babesteko.

Arriskua agerikoa da, handia izateko, bankuaren balia bideak asko zabaldu behar zaizkie beste inbertsiogile batzuei eta horrek, epe ertainean, arriskuan jartzen du kapital publikoa nagusi izatea

Teorian zera nahi da, Kutxabank Espainiako handien ligan aritzea, baina bere ohiko funtzio soziala betez. Arriskua agerikoa da, handia izateko, bankuaren balia bideak asko zabaldu behar zaizkie beste inbertsiogile batzuei eta horrek, epe ertainean, arriskuan jartzen du kapital publikoa nagusi izatea. Ez da oso urruti joan behar handikerien arriskuez ohartzeko, horrela

jokatu zuen Nafarroako Kutxak –Banca Civica medio– eta gaur egun desagertua da. Barka, bada, La Caixaren %1 da.

Mesfidatiak izateko arrazoi asko daude ordea. Gaur egun, merkatuak diren horiek agintzen dute egiazki eta, erreformak erreforma, ez da sumatzen botere publikoek aginte makila hartzeko ahaleginik. Horren erakusleak ugari dira: bat, EBko ekonomia laguntzeko inbertsio osoa EBZtik bideratzen da, hau da, finantza sistemara, eta ez Europako Inbertsio Bankutik (ekonomia errealer); bi, Espainiako etxe kaleratzeen lege-dekretuarekin argi ikusi da finantza sistema soka motzean lotzeko saioa noraino iritsi den; hiru, 2013tik aurrera, EBZren baldintzak medio, indartu egingo da bankuen salerosketa joko; lau, euskal aurrezki kutxek ez dute izango legezko loturarik Kutxabankekin,


eta lotura hori Kutxabanken borondatearen menpe geratuko da; bost, 2007an finantza krisia sortu zenetik, mugimendu guztiak estatuak eta babes sozialaren aurkakoak izan dira, eta finantza sistemaren aldekoak...

Maastricht-eko Itunaren 104. artikulua finkatu zuen estatu-tako banku zentralak ezin zituztela beren gobernuak finantzatu. Zentzugabekeria hark, banku pribatuak aberastu ditu eta ehunka milioi herritar hondoratu. Hobe kontrol publikoa duten aurrezki kutxak, baina hori posible ez bada, zer aukera dago? Gaitza izango da, baina banku edo kutxa pribatuari oraindik ere eman dakioko zentzu publikoa. Legeak ezin du hori debekatu. ■



ASTE HONETAKO

zozketak



Atxaspi Hotela

Asteburu pasa bi lagunentzat

Bittiria kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1




EUREKA! zientzia museoa

6 harpidedunentzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

2



Iruñeko Planetarioa

5 harpidedunentzat
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

3



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

4



Gartxot

2 liburu opari

www.argaia.com

5

AZKEN IRABAZLEAK (2344. Argia)

KAFE ANTZOKIA

- Jon Etxabe Jauregi (Elgoibar)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Jesus Lazkanoiturburu Arregi (Legazpi)
- Miren Begoña Goikoetxea Azkue (Getaria)
- Amurrioko Aek Euskaltegia (Amurrio)
- Luis Mari Ralla Arruti (Donostia)

ATLANTIKA mahai jokasa

- Aniturri Institutua (Agurain)
- Iñaki Osoro Otardui (Eibar)

ARTIUM Arte Garaikideko Euskal-Zentro Museoa

- Jose Antonio Amundarain Arana (Oñati)
- Ies Kanpezu (Kanpezu)
- Artez Euskara Zerbitzua (Bilbo)
- Juan Jose Belamendia Senperena (Azkoitia)

EUSKAL MUSEOA

- Euskal Birusa (Ermua)
- Arrate-Aginagako Zaharren Egoitza (Usurbil)
- M. Pilar Zeberio Begiristain (Andoain)
- Esteban Etxeberria Urreaga (Hernani)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argaia.com

www.argaia.com/gunea

Gunea

ARGIA



euskararen eguna
2012



PARTE
HARTU!

www.bandenlehia.com

> **IRABAZLEAK**

Bilbao BBKLive
jaialdian joko du eta



**Bilbao
BBK Live**

disko bat
ekoiztuko du!



> **Eta finalistek**

Lehiaketako
abestien disko
bilduma jasoko dute

ANTOLATZAILEAK



Bizkaiko Foru Aklundia
Diputación Foral de Bizkaia



Euzkera Galtza
Area de Euzkera

BABESLEAK



bbk=

